

ARGIA



OSASUN ITUNAREN MAHAIA

Gero eta ahulago

26-31. orrialdeak



**AE Ben monopolioa
zapuztu duen Txinako
Adimen Artifiziala**

12 | DEEPSEEK



**"Eta ohartu nintzen
maiaz hitz egiteko
gai nintzela"**

16 | YAMILI CHAN DZUL



**Errolda ukatzen
gehien
behar dutenei**

38 | GASTEIZKO UDALA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #304
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

A stylized illustration of a robotic hand holding a human hand against a sunset background. The robotic arm is dark and mechanical, with a white lace-like pattern on the wrist. The human hand is dark and appears to be reaching out. The background is a warm, orange-red sunset with silhouettes of a tree on the left, a crowd of people in the foreground, and rolling hills in the distance.

ARozTEGIA AUZIA

GARBIÑE ELIZEGI, ERNESTO PRAT ETA ITZIAR TORRESEKIN **GOIZ BAT LEKAROZEN**

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO IRUDIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA**

Iritziak

- 21 | JESÚS RODRÍGUEZ
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | IÑAKI BARCENA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | BEÑAT IRASUEGI

Finkoak

- 36 | GORPUTZ HOTSAK
- 40 | KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


JUAN IRADI

46 | ARABAKO MUSIKA KOLEKTIBOAK

Musikaren eszenan nagusitu diren enpresa handi, kontsumo joera komertzial eta makrokonzertuen aurrean, autogestionatutako esperientzia kolektiboak badira. Larraitz Fagundezek Gasteizko hainbat azaldu ditu.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Adimen artifiziala, geopolitikaren lubaki berria

Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | YAMILI CHAN DZUL

“Gure mugimenduak ahultzeko estrategiaren parte da emakumeak hiltzea”

Miel A. Elustondo

26 | EUSKO JAURLARITZA

Hankamotz jaiotako Osasun Mahaia herrenka iritsi da azkeneko fasera

Jone Gartzia

32 | INAZIOARTEA | ROBERTO VALENCIA

“Bukele diktadorea da, baina milaka pertsonaren bizimodua askoz hobea da egun duela hiru urte baino”

Maria Ortega

38 | GIZARTEA | (H)ILBELTZA

“Udala legez kanpo ari da errolda ukatzen gasteiztar behartsuenei”

Zigor Olabarria


 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**
Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Erredakzioa
Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Unai Lomana,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandiara

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA


OLATUKOOP

 Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara



Urrezkoak

Bata, eroskeriagatik eta sexu-abusuagatik kondenatutako delitugilea da. Epaiketa batzuk ebatzi gabe dauzka, besteak beste, estatu-kolpe bat sustatzeagatik. Besteak Nazioarteko Zigor Auzitegiaren atxilotze agindua du gerra-krimenengatik, eta egunotan ustelkeriagatik epaitzen ari dira, iruzurra, eroskeria eta konfiantza-abusua egotzita. Lagunak dira biak. Baldintzarik gabeko laguntza, arma tonak eta milaka milioi dolarrek eskertzeko, Washingtonera egindako bisitan sionisten buruak oparitxo bat ekarri dio bere nagusiari. Bizi gaituen mundua oso modu grafikoan azaltzen duen zerbait: "Pertsona-bilagailu" bat, baina urrezkoa, Israelek Hezbollahko kideen artean infiltratu eta ondoren zartarazi zituen horien erreplika bat. 37 pertsona hil zituzten Libanon, tartean bi haur, eta bilagailutik gertu pasatzen ari ziren 3.000 pertsona baino gehiago zauritu. Terrorismoa, urre kolorez jantzita, beste gauza bat da.



Zaldibarko zabortegiaren hondamenditik bost urte

UNAI LOMANA URIBEZUBIA / URKO APAOLAZA AVILA

Joaquín Beltrán eta Alberto Sololuze langileak oroitzeaz gain erantzukizunak eskatu dituzte, Zaldibar Argituk otsailaren 9an Eitzagan eginiko ekitaldian. Justiziaren mantsotasuna salatu dute, sumarioa oraindik instrukzio fasean dagoelako.

Otsailaren 6an bost urte bete ziren Zaldibarko zabortegian luizia gertatu zela. Hondakinek AP-8 blokeatu eta Joaquín Beltrán eta Alberto Sololuze hil zituzten. Gertatutakoaren memoria egin eta erantzukizunak behin betikoz argitzeko elkartu ziren 300 pertsona inguru igandean, Eitzagan.

Gaizka Zabarte Zaldibar Argitu plataformaren ordezkariak gogorarazi du ekimen herritarrak hasiera-hasieratik eskatu zuela erantzukizunak argitzea, eta salatu du haiek izandako bizkortasuna e dutela bere egin epaitegiek, sumarioaren instrukzioak abian jarraitzen baitu.

IKERKETA IREKIA BOST URTEREN OSTEAN

2021. urtean jarri zuen Durangoko Instrukzioko 1 zenbakiko Epaitegiak ikerketa martxan, eta irekita jarraitzen du. Ikertuen artean, Verter Recycling enpresaren jabea, Jose Ignacio Barinaga; gerentea, Maria Arrate Bilbao eta ingeneriari burua, Elosegui Etxeberria daude. Baita Eusko Jaurlaritzaren administrazio taldeko bi teknikari, Lurtek aholkularitza-enpresako bi geologo eta Geyser enpresako bost tekniko.

Verter Recycling enpresako jabeek sei hilabetetako kartzela eta ahozko epaiketa saihestea lortu zuten, kalte-ordainen inguruko akordio baten bidez. Hondamendiaren ostean Verter Recycling enpresak ez zituen inguruaren egonkortze-kostuak ordaindu, ezta langileen erreskaterako gastuak ere.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, erantzukizunik ez hartzea leporatu dio Zabartek, eta hondamendia gertatu zen



ETB

Zaldibarko hondamendiaren auziak erakusten du, zabortegiaren gainean zegoen kontrol falta eta iluntasuna uste baino handiagoa zela. Durangoko epaileak berriki beste auzi bat ireki du, sekretupean dagoena

momentuan boterea eta erabakitze-ko gaitasuna zuten pertsonak eszena politikotik desagertu direla. Gauzak horrela, Zabortegiaren egungo egoeraz informazioa ematea eskatu dio Jaurlaritzari, "informazio ofizial falta" dagoelako. Hala ere, itxaropen handirik ez dutela diote, Jaurlaritzak ez baitu informazioa "errazteko eta publiko egiteko" jarrera izan.

Hondamendia gertatu aurretik, Eusko Jaurlaritzako ingurumen teknika-

riek zazpi inspektzio egin zituzten Zaldibarko zabortegira, eta azkenekoan 23 "desbideraketa" atzeman zituzten, baina ez zieten behar bezalako larritasunik eman. Jokabide eta kontrol falta horrek auzitan jarri zuen ordura arteko zabortegiaren kudeaketa osoa: "Zabortegi pribatuaren ereduarekin amaitzea guztiz premiazkoa da, are gehiago eredu hau fidagarria ez dela frogatuta geratu denean", idatzi zuen handik hilabete batzuetara EH Bilduko Mikel Oterok.

Zaldibarko zabortegira hemeretzi bisita egin dituzte 2022tik teknikariek, horietako gehienak programatu gabeak izan dira, eta hainbat arau-hauste atzeman dituzte, tartean lixibiatuen isurketan gehieneko kopuruak gainditzea, desgasifikazio tximiniak ez eraikitzea, eta zabortegia zigitatzeko prozesuan epeak ez betetzea.

Zaldibarko hondamendiaren auziak erakusten du zabortegiaren gainean zegoen kontrol falta eta iluntasuna uste baino handiagoa zela. Durangoko epaileak berriki beste auzi bat ireki du, sekretupean dagoena. ●

MOTZEAN

Euskara hutsezko hartzain-etxea irekiko dute Aiherran. Nafarroa Beherean, Aiherrako 'Beltzegitea' etxean kokatuko da Eguzkilore hartzain-etxe berria. Heldu den apirilean hasiko dira zerbitzua eskaintzen.

Maccabi Tel Aviv saskibaloitza talde israeldarrak Baskoniaren aurka Gasteizen jokatu duen egunean, ehunka lagun mobilizatu dira bertan. Halakoek "Israelgo Estatuaren normalizazioa" dakartela salatu dute.

Langabeen artean, 2.302 pertsona gehiago erregistratu dituzte urtarilean Hego Euskal Herrian, eta horietatik 2.173 emakumeak dira, Espainiako Lan Ministerioak emandako datuen arabera.

Berriztagarrien lurralde plana aldatu du Jaurlaritzak, eskala handiko eolikoei toki gehiago egiteko. Abenduaren 20an Eusko Jaurlaritzak planaren behin-behineko bertsioa onartu zuen eta gaitasun "baxu eta ertaineko" eremu ugari gaitasun "ertain eta altukoak" bezala ageri dira orain.

Liburutegi publikoak kudeatzearen ardura duen EAEko Liburutegi Zerbitzura gutun bidalketa masiboa egin dute Debako hainbat herritarrek, herriko liburutegiko araudi diskriminatzailearen aurrean esku har dezala eskatzeko. 6 urtetik beherakoek egunean ordubetez baino ezin dute liburutegian egon Deban, eta 2 urtetik beherakoek zuzenean debekaturik dute.

Subflubiala Ez! plataformak deituta, ibaieko autobidearen proiektua gelditzea exijitu dute ehunka lagunek Bilbon.

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



Hizkuntza eskakizunen aurkako oldarraldia

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Donostiako Udalak 2024ko irailean helegitea jarri zuen, urte bereko urtarrilean epaileek bi udaltzainen B2 hizkuntza eskakizuna baliogabetu zutelako. EAeko Auzitegi Nagusiak helegitea ez du tramitera ere bideratuko, “kasaziorako interes objektiborik” ez dagoelako. Usurbilgo eta Astigarragako udalek, berriz, helegiteak jaso dituzte udaltzainak hautatzeko prozesuetan euskarazko 3. hizkuntza eskakizuna zehazteagatik.

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko epaitegiak euskararen aurkako sententzia eman zuen: Jose Ignacio Hierro buru zuen salak ebatzi zuen “diskriminatzailea” zela udaltzain izateko euskara maila jakin bat eskatzea. Espainiako Konstituziora jo zuen epaileak, 23. artikulura, zera argudiatzeko: herritar guztiek dutela deialdi publikoetara berdintasunez iristeko gaitasuna. Epaileak adierazi zuen ez zela ezinbestekoa denek euskara jakitea herritarrei hizkuntza koofizialen zerbitzu emateko. Alegia, lanean batera ari diren bi agentetik batek egitea aski zela. Horiek horrela, “diskriminatzaileztat” jo zuen euskararen ezagutza egiaztatzea.

2024ko irailean, Donostiako Udalak helegitea iragarri zuen, eta EAeko Auzitegi Nagusiaren ebazpena orain iritsi da.

Bestalde, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak aditzera eman du azken asteotan helegiteak jaso dituztela Astigarragako eta Usurbilgo udalek, udaltzain berriak hautatzeko prozesuetan euskarazko 3. hizkuntza eskakizuna (C1 maila) ezartzeagatik. Xabier Urdangarin Astigarragako alkateak bi udalek emandako erantzunaz hitz egin du: “Helegiteak jarri dituztenen arabera, 2. hizkuntza eskakizuna nahikoa da. Ez dugu inolaz ere bat egiten horrekin. Ez baita horrela. Udalerrri euskaldunetan, herritarrekin euskarazko harremana izateko, herritarrek esandakoa ulertzeko eta herritarrekin hitz egiteko, 2. hizkuntza eskakizuna ez da nahikoa, hainbat urtez hainbat udaletan izan diren kasuek eta arazoez erakutsi duten bezala”. ●

ANALISIA



Save the children, saldu bonbak

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Pilar Kaltzada Zedarriak taldeko kidea da. Urtarrilaren 15ean taldeak armagintza industria bultzatzeko hurrengo urteotan egongo den “aukera bikaina” aprobetxatzera deitu zuen, oihartzun handia izan zuen ekitaldi arranditsuan. Gasteizkoak talde antimilitaristaren ikerketaren arabera, Zedarriak-en hamasei kideetatik hamarrek izan dute edo dute lotura motaren bat armagintzarekin, tartean Kaltzadak berak. Kaltzada Save de Children (haurrak salbatu) GKEko Espainiako presidentea ere bada. Naiz-i eman zion elkarrizketan azaldu zuen zerk eraman zuen GKEn sartzera: “Txundigarria iruditu zitzaidan jakitea bazela antolakunde bat zioena gerra guztiak haurren aurkako gerrak direla”.

Jokin Aperribay SAPAko burua da, Euskal Herriko armagintza enpresa garrantzitsuenetakoa. Borroka ibilgailuetan eta artillerian aritu da nagusiki, eta berriki sektore aeronautikoan sartu da. Aperribay Realeko presidentea da. Bere webgunean irakurri daitekeenez, “Realaren misioa da zelai barruan eta kanpoan onenak izatea. Real Sociedad Fundazioaren betebeharra da zelaitik kanpo onenak izatea”. Horregatik, fundazioak hainbat balore sustatzen ditu: “Elkartasuna, inklusioa, genero-berdintasuna, euskara, ingurumenarekiko errespetua”.

Mikel Torresek, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak, Zedarriak-en proposamenari erantzun zion iragan astean. Produktu eta merkatu berrien “aukera” baliatzera deitu eta Jaurlaritzaren “babeza” ziurtatu zion sektoreari, “herrialde osoaren onerako”.

Save the Childreneko presidentea esku batekin gerretako haurrak salbatzen eta bestearekin armagintza bultzatzen; Realeko presidentea goizetan elkartasuna eta inklusioa bultzatzen, arratsaldetan heriotzarekin merkataritzan AEBetan, Turkian, Espainian edo Saudi Arabian –eta odol-negozioak harro azaltzen Moncloan, talde argazkia eginda Espainiako armagintzaren buru nagusiekin–; Jaurlaritzako lehendakariordea armagintza sustatzeko konpromiso publikoa hartzen, Gasteizko Legebiltzarrak hori debekatzen duen legea onartu bazuen ere, tartean bere alderdiaren aldeko bozekin; Jaurlaritzako lehendakariordea EAeko ekonomian armagintzak duen pisu “oso garrantzitsuz” harro 2024an, 2017an Urkullu lehendakariak hori bera ezkutatu nahi izan zuenean produkzioa “ehizarako armetara” mugatuta.

Urte batzuk direla, horietako gauza asko ez liriteke gertatuko, eta gertatuko balira asaldura handia sortuko lukete, gaur ez bezala. Zergatik? Torresek eman du erantzuna, armagintzaren konplexurik gabeko apologia egin ostean gehitu baitzuen *sozialistak*: “Beste kontu bat da gutako bakoitzak izan ditzakeen posizio ideologikoak esparru honetan”.

Heriotzaren merkataritza sen on hutseko zerbait bailitzan irudikatu nahi dute. Armagintza eta militarismoa despolitizatu eta desideologizatu nahi dituzte, haien proiektu politikoa eta ideologia erresistentziarik gabe inposatzeko munduan zein etxean. Ez dezagun baimendu, hurrengo urteotan gure gizarteek hartuko duten norabidea erabakitzekeo lubaki garrantzitsuenetakoa baita. ●

237

musikarik babesa adierazi diote Raimundo el Canasterori, eta musikaren bidez boterea kritikatzeko zilegi dela aldarrikatu dute. Taldea epailearen aurrera deitu dute otsailaren 12an, Lizarrako Udalaren jarrera salatzen kaleraturik abestiagatik.

2,3 milioi

hildako eragingo lituzke muturreko beroak Europan, mende bukaerarako. Hala dio *Nature Medicine* aldizkariak. 2025eko urtarrila izan da mundu mailan inoiz erregistratu den urtaririk beroena.

% 48

Otsailaren 6an zenbatu dituzte Biarno eta Ipar Euskal Herria biltzen dituen departamenduko laborantza ganberarako bozak. Ipar Euskal Herriko lehen indarra izaten segitzen duela ohartarazi du ELBk, botoen %48 jasorik.

“Jazarpena azken urte eta erdian areagotu da”



IÑIGO CABACAS HERRI HARMAILA

Iñigo Cabacas Herri Harmaila taldea eta Athleticen arteko harremana nahaspilatuta dago azkenaldian.

BILBO HIRIA (2025-02-03)

**“FAXISMOAK
EZIN DU LEKURIK IZAN
HEZKUNTZA SISTEMAN”**

Gasteizko EHUko Farmazia Fakultateko irakasle batek sare sozialetan “mezu faxistak” zabaltzen dituela salatu dute Ikamak eta Ikasle Kontseiluak. Eraso zibernetiko batekin identitatea ordezkatu diotela argudiatu du irakasleak.

2025-02-07

*“Erakundeek erantzukizuna
aldamenekoari pasatzen diote”*

MIKEL URABAIEN, PARIS 365

Iruñeko Paris 365 jantokiak ez ditu martxora arte aurrez aurreko afariak emango eta erakundeek inplikazioa eskatu die konponbidea lortzeko.

EUSKALERRIA IRRATIA (2025-02-03)



Bilakaera kontzientea



DIANA FRANCO EGUREN

Zer jakin behar dut? Norekin erlazioan behar dut? Non bizi behar dut? Ardura horiekin gabiltza gizakiok gure gizartearen baitan bizitza on baten ideia bizitzeko bidean. Ondo erantzuten ez badakigu, bazterretan geratu garen beldurrez.

Joan den astean, kanpoan geratzea beldur horren inguruan bi elkarrizketa izan ditut, biak Adimen Artifizialari lotuta. Lehena elkarte batekin: euren ardura da Adimen Artifizialen aurrean zein rol izan behar luketen ulertu nahia: erabiltzaile? Garatzaile? Beste leku batera begiratu? Azken batean, eurekin batera pertsona asko mugitzen dituzte, eta erantzukizuna handia da. Bigarrena, pertsona nagusi talde batekin izan da: ez dakite mugikorra ondo erabiltzen, eraldaketa digitaletatik kanpo sentitzen dira bada, eta Adimen Artifizialak zelan eragingo ote dien arduratuta daude.

Behin, Margarita Padilla aktibista eta informatikariak azaldu zidan "Internet egiten" lan egiten zuela. Garai hartan, ez nuen pentsatzen Interneten eragin zitekeenik, ezta nire esku halako garapen aukerarik egon zitekeenik ere. Azken aldian, ordea, Fedibertsoaren eztagarriekin, mundu osoan zehar beste Internet bat posiblea dela ikusten gabiltza.

Nik ez dut Adimen Artifizialik kontzienteki erabiltzen, nire minimunduan egiten ditudan gauzak ez dira hain konplexuak, eta nire burmuina apur bat estutuz lana aurrera atera dezaket. Argi dut, baina, konplexutasuna metatzen den esparruetan (zientzia, osasuna...) Adimen Artifiziala modu etikoa garatzea oso baliagarria izan daitekeela.

Internet egitea, gizartea egitea, harreman taldeak sortzea... gauza bera direla ulertzen hasi naiz. Gizaki bezala, bizitza onak bizitzeko bidean gure balioei eta gaitasunei loturiko erabaki kontzientek hartzearekin du harremana. ●



Balea eta izurde sarraskiaren aurkako boikota

AXIER LOPEZ

Faroe uharteetan, Ipar Atlantikoko artxipelago bat, Danimarkaren kontrolpean, urtero ehunka zetazeo hiltzen dituzte –normalean milatik gora-. Batzuek "tradizioa" deitzen diote, hainbat mendetako antzinatasuna duelako. Baina odolez gorritutako hondartzan zaurituriko ehunka izurde eta balearen irudi ezagun eta biralek gero eta zailago egiten dute "ohitura" horren justifikazioa.

Nazioarteko kanpaina bat dago abian Faroetako arrantzari boikota egiteko, praktika horiek egiten jarraitu bitartean. Paul Watson Fundazioaren eta ARDE animalien defentsa-erakundeak egindako ikerketaren berri eman dute *El Salton*. Espainiako Estatuan bederatzita supermerkatu eta arrantza-industria lotzen ditu praktika odoltsu horrekin.

"Espainiako bederatzita supermerkatu nagusiek saltzen dute Faroetako arrantza-eremuko bakailoa, eta horietako zazpik –Alcampo, ALDI, Mercadona, Carrefour, Consum, DIA eta Lidl– beren marka zuriarekin", adierazi du Julia Elizalde ARDEko bozeramaileak. El Corte Inglés eta Eroskik osatzen dute zerrenda. Saltzen dituzten marken artean daude Alkorta, Aliigator, Angomar, Dimar eta Pescanova.

"Faroetan arrantzatzen duten enpresek aktiboki parte hartzen dute baleen eta izurdeen ehizan", adierazi du Elizaldek. Hortik dator boikot deialdia.

BEHARRIK GABEKO "OHITURA"

"Ohitura" horri Grindadráp deitzen diote, eta batez ere pilotu-baleak,

Ipar Atlantikoko izurdeak eta Atlantikoko hegal zuriko izurdeak akabatzen dituzte. Laburrean hala da: arrantza-itsasontziak zetazeo taldeak jazartzen hasten dira, kala eta hondartzetara eramanarazteko. Han jendea dute zain, sokadun kakotxa eskuan, espirakuluan –arnasketa-zuloan– sartzeko, eta hala zetazeoak itsasertzera erakartzeko. Behin hondarrera hurbilduta, aiztoekin bizkarrezur-muina ebakitzen diete. Prozesua amaitzen da beste pertsona batek lepoaren atzealdea moztzen dienean, bi odol-hodi garrantzitsuenak zartatzeko. Eta hala, odolustuta, hiltzen dituzte animaliak, ehunka.

Europar Batasunak eta Nazioarteko Baleontzien Batzordeko kide diren estatuek 2021ean Faroer Gobernuari eskatu zioten "baleen eta izurdeen ehiza zaharkituari berehala amaiera emateko". Urte hartan 1.428 zetazeo hil zituzten egun bakar batean. Halere, kasurik egin ez eta pasa den urtarrilaren 10ean egin zuten aurtengo lehen Grindadráp-a.

"Hastapenean, duela mende asko zentzua izan zezakeen. Animaliak harrapatzeak arrakasta-ratioa askoz txikiagoa zen, eta uharteetan bizi zirenentzat eskuragarri zegoen elikadura-iturri bakanetakoa zen", dio Watson fundazioko Cristina Gimenez. Egun, ordea, "ez du batere zentzurik", eta gogorarazi du biztanleko errentarik altuena duen munduko lekuetako bat direla Faroerak, eta langabezia-tasa %1 ingurukoa dutela. "Ez dute inolako beharrik hori egiteko". ●

Behe Bidasoako eraso faxistak eta Devenir Europeo

 XABIER LETONA BITERI

Eraso faxistak, xenofoboak edo homofoboak gero eta ugariagoak dira Euskal Herrian ere, eta kezka barreiatu da han-hemenka. Behe Bidasoa da eraso horiek pairatzen dituen eremuetakoa, eta hor, zehazki, eraso edota ekintza gehienak Devenir Europeo (Europaren bilakaera) izeneko taldeak egindakoak ei dira.

Talde erasotzaileen jarduna iluna da, bistan denez, eta “informazio zehatza biltzea zaila bada ere, jakina da dozenatik gora eraso gauzatu dituela aipatu talde txoak”. Irungo Bor-bor hausnarketa kolektiborako taldearen hitzak dira. Asteazken honetan zabaldu duen idazkian Behe Bidasoako eskualdean ustez Devenir Europeo talde neonaziak egindako erasoak aipatzen ditu: pintaketa naziak, pegatina itsasketa masiboak hainbat auzotan, eta mina eragin asmo zuten kristaldun kartelen itsasteak, besteak beste.

Gabonetan, aldiz, taldeak jauzi bat eman zuen eta lehergailu txikiekin eraso egin zien Lakaxita gaztetxeari eta Mosku plazan Mugimendu Sozialistak okupatua duen espazioari. Bor-borrek dioenez, “norbanakoa ere mehatxatu dituzte, haien etxebizitzetan pintaketak eginez” eta susmoa dute haiek egin dutela San Miguel auzoan frutategi baten aurka izandako eraso arrazista ere.

Erasoak ez dira Irunera mugatzen. Joan den abenduaren 20an jakin zen talde faxistaren batek eraso egin ziola Agiñako memorialari. Esklabo lanetan Lesaka eta Oiartzun lotzen dituen errepidea egiten aritu ziren “langile batailoietako” gati buak oroitzen ditu oroigarriak.

Urtarilaren hasieran, halaber, *El Salto*-k Gabonetan Arrigorriagan, Biarritzen eta Baionan egindako beste hainbat eraso faxistaren berri eman zuen.

ZER DA DEVENIR EUROPEO?

Ramon Bau eskuin-muturreko idazle ezagunak gidatutako “kultur elkartea” da Devenir Europeo (DE) eta bere webgunean irakur daitekeenez, bere burua nazional-sozialistatzat du. Europa dekadentzia gorrian dagoela uste dute taldean, besteak beste immigrazioaren



Peralta Suediako ekitaldian.

ondorioz, eta egoerari itzulia emateko nazismoaren itzulera aldarrikatzen dute ahobizarririk gabe. Lehenago, Bau CECADE talde falangistaren kide izan zen; taldea 1966an sortu zen Bartzelonan eta 1996an desagertu.

Bor-bor kolektibotik diotenez, “DE diskurtsoa egokitu, nazioarteko aliantza naziak josi eta tokian toki zelula berriak sortzen ari da. Txingudin jazotzen ari dena aintzat hartuz, arduraz aitortu behar dugu aurrerapausoak eman dituztela, eta itxuraz, hainbat gazte limurtzea ere lortzen ari direla”. Euskal Herriko sekzioa ere badu eta bertan zehazten denez, 30en bat ekitaldi egin izan zituen 2017ra arte. Gehienak hitzaldi pribatuak dira eta haietara joateko elkarteko zuzendaritzaren baimena behar da. Telegram sare sozialean ere badute euren kanala.

ATZERRIKO HARREMANAK

Iragan abenduan Isabel Peralta DEko liderretakoa Suedian izan zen hango gisa bereko eskuin muturreko Erresistentzia Nordikoa taldearen biltzar batean. Peralta hainbatetan nabarmendu da ekitaldi publikoetan eta, bereziki, Ferraz kalean PSOEn aurka Espainiako eskuinak Prozes-eko indultuen karietara egindako mobilizazioetan. Madrilen jaioa da eta guraso nafarrak ditu.

Público egunkariak biltzarraren berri eman zuen eta Peraltak biltzar hartan esandakoak bildu zituen: “Definitzen nauten hitzak leialtasuna eta fanatismoa dira. Dagoen kausarik nobleenaren soldadu bat besterik ez naiz: nire arrazaren biziraupena eta haren existentziarako borroka da kausa hori. (...) Askok uste du nazional-sozialismoa hilda dagoela, Berlingo hondakinen azpian geratu zela. Baina hori ez zen amaiera izan, munduak inoiz ikusiko duen sorkuntza handienaren hasiera baizik”.

ZER EGIN HORIEN AURREAN?

Bor-bor kolektiboak aitortzen du galdera gehiago dituela erantzunak baino: “Nahikoa ulertzen al ditugu borrokatu ahal izateko? Zeintzuk dira? Zergatik lortu dute gure artean ideologia nazia duen zelula iraunkorra osatzea? Nolatan dira horren aktibo eta oldarkorrak? Zer eta zein dute jo-mugan zehazki? Nola egin aurre haien diskurtso pozoigarri eta praktika biolentoari?”.

Erantzun argirik ez dute, baina erantzuna bilatzeko metodoa bai, “horregatik, datozen asteetan gaiari heldu eta Txingudin antifaxismoa elikatzeko formazio plazak irekitzeko konpromisoa hartu dugu”. ●

ADIMEN ARTIFIZIALA, GEOPOLITIKAREN LUBAKI BERRIA

Silicon Valleyko enpresa teknologiko handienei zaplazteko ederra eman die DeepSeek-ek. Adimen Artifizialeko chatbot txinatar merke eta berriak zalantzan jarri du AEBen nagusitasuna arlo horretan, eta erakutsi du ez dela milaka milioi diru behar modelo aurrerratu eta efizienteak egiteko. Baina horrek ez du esan nahi erronkak eta arriskuak txikiagoak izango direnik, ez geopolitikari dagokionez, ezta ingurumenari dagokionez ere.

 URKO APAOLAZA AVILA

Asteartea, hilaren 21, Etxe Zuria. Donald Trump aldamenetik repeatzen ari dela dirudi, atrilean den Sam Altmanek *ze-ostiatan-ai-zea* dioen aurpegiarekin begiratzen dion bitartean. Egunero ez da 500.000 milioi dolar balioko dituen proiektu bat aurkezten eta Trumpek hori egin nahi izan du munduko sheriff kargua estreinatzeko: *Stargate* izena jarri diote AEBetan Adimen Artifiziala bultzatuko duen lan-elkarte berriari. Karrera espazialaren *Apolo* proiektuarekin edo arma nuklearra sortzeko *Manhattan* programarekin parekatu dute askok.

“Garai berri baten hasiera da”, dio OpenAI-ko buru Altmanek. Lau urtetan Adimen Artifizialarentzako (AA) azpiegiturak biderkatzea da asmoa, orain Texasen egiten ari diren eskala handiko datu zentro erraldoia bezalakoak herrialde osora hedatzea. Berarekin dauke Oracleko sortzaile Larry Ellison eta Softbankeko kontseilari delegatu Masa-

yoshi Son. Amaieran argazkia atera dute Etxe Zuri kanpoaldean, kuadrillako afari batean bezain irribarretsu daude.


Baina egun berean, etxafuegorik gabe, enpresa txinatar batek beste AA modelo bat merkaturatu du: DeepSeek. Adituak ahoa bete hartz utzi ditu *low cost* AA berriak, eta hankaz gora jarri ditu Silicon Valleyko multinazionalen planak. Baina zergatik? Moon of Alabama geopolitikan espezializaturiko blogak *How Chinese Beat Trump and OpenAI* (Txinatarrek nola garaitu dituzten Trump eta OpenAI) izeneko sarrera argitaratuko du biharamunean, sekuentzia osoa zehatz-mehatz azaltzen duen artikulua.

“Adimen Artifizialaren inguruko burbuila, hori monopolizatzeke AEBen saiakera antzua, eta Txinak berriki egin duen kontraerasoa, lezio ederrak dira erakusten dutenak berrikuntza nola egin behar den, eta AEBak horretarako gaitasuna galtzen ari dira”, diote blo-

gean. Duela urte eta erdi, mundu guztia ChatGPT aplikazioa goraiatzaren ari zenean, abisua bota zuten esaten aurrera-kuntza ez zela hainbestekoa.

BURBUILA DIGITAL BAT

Lengoaia naturalaren inputak irakurri eta prozesatzea ez da berria. 1960ko hamarkadan Massachusettseko Teknologia Institutuan Joseph Weizenbaum informatikariak *Eliza* izeneko makina batekin elkarrizketa izan zuen, *mainframe* edo konputagailu baten bidez. ChatGPT, hasierako AA hura baino abilagoa izan daiteke, bere “solasaldiek” harridura sor dezakete, eta baliteke zenbait arlotan –idatzizko hizkuntzen itzulpenean kasu–, praktikoa izatea... Baina ez du ulertzen sinboloek ze esanahi duten, ezin ditu matematika eta logika ariketak ebatzi, sinpleak izanik ere: “Burbuila hori ez dago justifikaturik”, ondorioztatu zuten Moon of Alabamako artikulua hartan.



ADOBE STOCK

Eta hala ere, burbuilak puztu eta puztu jarraitu zuen, gimnasioko morroi hormonatuen giharrak hazten diren bezala. OpenAI-k ikusi zuen milaka milioi irabaz zitzakeela, eta bere modelo kaxa beltz bat bailitzan itxi zuen negozioa egiteko. Nahiz eta erabiltzen dituen algoritmoak ezagunak diren eta entrenamendurako edukiak zuzenean Internetetik hartzen dituen, nahiz eta datu horiek guztiak prozesatzeko diru eta energia xahutze ikaragarria behar izan, AEBetako Gobernuak pentsatu zuen mundua menperatzeko teknologia berria jaio zela, eta monopolio hori mantentzeko Nvidia konpainiaren txip erdieroale modernoak Txinara esportatzea debekatu zuen.

Orain, itxura guztien arabera, DeepSeekek popatik hartzera bidali ditu asmo horiek eta AEBen negozio erdua. Txinako konpainiaren R1 izeneko modeloaren errendimendua OpenAI, Anthropic, Google edo Metarenak be-

Itxura guztien arabera, DeepSeekek popatik hartzera bidali du AEBen negozio erdua, bere errendimendua OpenAI, Anthropic, Google eta Metarena bezain ona delako

zain onak dira, baina entrenamendurako askoz datu konputazional gutxiago erabiltzen du, gordetzen duen informazio guztia martxan jarri beharrean, probabilitateen arabera egokiena iruditzen zaion erantzuna ematen baitu, "aditu talde" bati galdetuko balio bezala.

30 DOLARREKO IPHONE BAT

Reuters albiste agentziaren arabera, DeepSeekek Nvidiaren 2.000 txip erabili ditu bere AA modelorako eta 5,5 milioi dolar gastatu ditu horretan. Entrenamendua geldotzeko diseinatuak dauden H800 belaunaldiko txipak dira, ChatGPTren o1 izeneko azken bertsioa entrenatzeko erabiltzen diren H100 txip garestiak baino zaharragoak eta askoz mantsagoak; baina hala ere OpenAI-ren txipen %2 baino ez ditu behar izan konpainia txinatarrak, eta bere tresna %90 merkeagoa da.

"Funtsean, norbaitek iPhonearen mailakoa den beste mugikor bat merkaturatu izan balu bezala da, baina 30 dolar balio dituen, 1.000 dolar beharrean. Dramatikoa da". Konparazio horrekin azaldu du modelo batetik besterako alde, Txinako gaitan aditua den Arnaud Bertrand enpresari frantziarrak. Beste askok "Sputnik txinatarrak" deitu diote gertatutakoari. 1957ko urriaren 4an So-



ADITU AL DUK? Badirudi esaten diola Donald Trump AEBetako presidentek Sam Altman OpenAI-ko buruari Etxe Zurian, *Stargate* proiektua milioiduna aurkeztean. Biharamunean, burtsek sekulako danbatekoa jasoko dute DeepSeek Adimen Artifizial berriaren agerpenarekin.

bietar Batasunak lehen satelitea orbitan jartzea lortu zuen, eta Gerra Hotzaren mamuarekin ikaratuta zeuzkaten milioika estatubatuarrek ikusi ahal izan zuten baloi metaliko bitxi hori beraien buru gainetik pasatzen 98 minuturo; ordu-ra arte sobietarrekiko zuten abantaila teknologikoa galdu zutela sentitu zuten, orain Txinarekiko abantaila galdu duten bezala.

Gainera, eta hau ez da txikikeria bat, DeepSeek kode irekian zabaldu dute bere sustatzaileek. ARGIAN bertan Gorka Peñagarikano kazetariak *Txinari inbidia: gerra komertzialak adimen artifiziala du izena* artikuluan azaldu moduan “kode irekiaren praktikak kinkan ipini du merkatuaren eredua. Algoritmoen txipak garestiak direnez, orain arte Silicon Valleyko enpresa handiek soilik zuten gaitasuna inbertsio masiboak egin eta merkatuan eragiteko”. Alegia, orain edozeinek erabili ditzake algoritmoak eta horrek ateak ireki dizkie AA modelo berri eta merkeei.

Baina DeepSeek ez dator bakarrik. Sorturiko lurrikarak eragin du Alibaba txinatar erraldoiak aspaldi esku artean zeukan Quewn 2.5 AA aplikazioa arrapaladan plazaratu behar izatea. “Txinak Adimen Artifizialaren arloan aurrera egitea eragozteko AEBek Nvidiako erdieroaleen gainean jarritako kontrolak, oharkabean berrikuntza sustatu dute, Hangzhoun egoitza duen DeepSeek eta

antzeko enpresak soluzio kreatiboak bilatzera bultzatu baititu”, irakurri dugu Moon of Alabaman.

Eta horrela, urtarrileko astelehen beltz horretan, ilunabarrean Washingtonen 500.000 milioi euroko inbertsioa iragartzen zutenek, egunsentian ikusi dute burtsan bilioi bat dolarreko galerak izan dituztela, Nvidiaren kasuan izan den bezala; Nasdaq estatubatuar indizean %17 galdu zuen egun bakarrean, 600.000 milioi dolar. Beste batzuei ere larria ederki konpondu die AA modelo berriaren agerpenak: Googlen Alphabet, Microsoft, Meta... denak behera.

The Next Recession webguneko blogean idazten duen Michael Roberts ekonomialari marxista ezagunak –sarritan aipatu izan dugu orriotan– *AI going DeepSeek* (AA DeepSeeken bila doa) postean nabarmendu du *Financial Times* egunkariari Ray Dalio inbertitzaile super-aberetsak aitortu diona: burbuila lehertu daitekeen beldur izan dira enpresa horietan kotizatzen dutenak.

JEVONS PARADOXA: GEHIAGO ETA GEHIAGO

DeepSeekek paradigma aldaketa ugari ekarri ditzake, ez bakarrik AEBen eta Txinaren arteko harreman geopolitikoetan, baita “gerra kulturalari” dago-kionez ere. Aplikazio txinatarrari galdeztzen badiogu Tiananmengo sarraskiaz, erantzungo dizu ezin duela horri bu-

ruz ezer esan; eta ChatGPTri galdetuz gero AEBetako sekretu militarrez, gauza bera esango dizu. Guk beste froga bat egin dugu eta eskatu diegu definitzeko ARGIAren kazetaritza hiru hitzetan: ChatGPTk “egia, gardentasuna, ardurtsua” hitzak aukeratu ditu; DeepSeekek, berriz, “libre, kritikoa, independente” hitzak. Definizio lausoetatik harago, garbi dagoena da orain arte AAren arloan hegemonikoa zen Mendebaldeko begirada lehiazera etorri dela DeepSeek.

Baina beste gauza bat ere klarki ikus dezakegu: txipak, energia, ura eta diru gutxiago behar izanagatik, Adimen Artifizialaren hazkundea ez da gutxituko, alderantziz baizik. Microsofteko buru Satya Nadellak “Jevons paradoxa” aipatu du DeepSeekek eragindako lurrikaraz galdetuz. William Stanley Jevons ekonomialariak 1876an teorizatu zuenez, efizientzia gehiagok ez du esan nahi materiala aurretzuko duzunik, kontsumo-tasa handitu egiten delako. ARGIAN sarritan aipatu dugu fenomeno hori, Antonio Turiel eta Adrian Almazan fisikari ahotik: “Hori gertatzen da, adibidez, autoen efizientziarekin, gasolina gutxiago kontsumitzen dutenean: merkeagoa denez autoak gehiago erabiliko dira, eta denbora gehiagoz; horrek globalean kontsumo maila handiagoa izatea ekar dezake azkenean”, azaldu zigun Almazanek 2.861 zenbakirako egindako elkarriketan.


Aaren garapenarekin halako zerbait aurreikus daiteke. Energiaren Nazioarteko Erakundearen esanetan, AEBetan 2028an eskala handiko datu zentroek herrialdeko elektrizitate kontsumoaren %12 irentsiko dute, Japoniaren urteko kontsumoa adina. Horrela uler liteke zentral nuklear zaharrak berriz zabaltzeko Microsoftek, Googlek eta Amazonek erakutsitako irrika. DeepSeeken modelo efiziente eta merkeagoak zerbait aldatuko al du? Galdera horri erantzunez, Zeelanda Berriko Victoria Unibertsitateko irakasle eta Adimen Artifizialean aditua den Andrew Lendersen hitzak zabaldu ditu AFP agentziak, Quebecoko *Le Devoir*, France24 eta antzeko hedabideetan: "Honek erraldoi amerikarrei lagunduko die, ez 10 bider txikiagoa den zerbait egiteko, baizik eta modelo handiagoak eraikitzeke, baina lehengo energia bera edo gehiago erabilita".

SUPER-INTELENTZIAREN BILA

Hortaz, zenbat okupatzen du ChatGPTren edo DeepSeeken erantzun batek? Olaia Inziarte eta Natxo de Feliperen azken kanta parafraseatzen, esan dezakegu ez duela toki bera, ezin duela eduki, Altman bezalako tekno-kapitalista baten eskuetan. OpenAI-ko mandataria-riaren ustez epe motzean trade-off-ak izatea –gauza batzuk sakrifikatzea bestaldetik gauza gehiago izateko– normala da... AGIra iristeko.

AGI? Ze arraio da hori? Galdera bera egin du Michael Robertsek bere blogeko artikuluan. Artificial General Intelligence (Adimen Artifizial Orokorra) ingelesezko terminoaren akronimoa da. "Garatzaileen Graal Santua da hori –dio Robertsek–. Esan nahi du AA modeloak super-inteligente bihurtuko di-

Adimen Artifizialeko modeloen kostua



TOKENAK Adimen Artifizialaren unitate txikiena dira. Grafiko honetan kalkulatu dute milioi bat token sartu eta irteteak zenbateko kostua duen AA modelo bakoitzean (dolarretan); DeepSeekek merkatua irauli du.

“Honek erraldoi amerikarrei lagunduko die, ez 10 bider txikiagoa den zerbait egiteko, baizik eta modelo handiagoak eraikitzeke, baina lehengo energia bera edo gehiago erabilita”

Andrew Lendersen, AAn aditua

rela giza inteligentziaren gainetik. Hori lortzean, Altmanek hitzeman du bere modelo gai izango dela langile baten lana ez baizik enpresa oso baten lan guztiak egiteko”. Batzuek gizadiaren akabera ikusten dute AGIa bilatzeko karrera horretan, baina hori beste upel bateko sagardoa da, zorionez gizaki soziala uste baino konplexuagoa delako.

Robertsen ustez, garbi dagoena da Silicon Valleyko magnateek ez diotela datu zentroak hedatzeari eta txip gero eta aurreratuagoak ekoizteari utziko, soilik DeepSeekek beren egungo modeloak zapuztu dituelako. Adimen Artifizialarekin karrera bat dago martxan Txina eta AEBen artean, nork jarriko ote du hurrengo *Sputnik*-a orbitan? ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i

Yamili Chan Dzul

EMAKUME, INDIGENA, PREKARIZATU



GURE MUGIMENDUAK AHULTZEKO ESTRATEGIAREN PARTE DA EMAKUMEAK HILTZEA



Oinarrizko maia komunitateko U Yich Lu'um [Lurraren fruitu] organizazioko kide da, eta hizkuntza biziberritzea helburu duen Yúnyum erakundekoa. Bestalde, antropologoa da, hezkuntza prozesuen bideratzaile, eta emakumearen eskubideen aldeko aktibista eta militante Yucatanen, Mexikon, feminizidioa eta indigenen kontrako politikak eguneroko ogi diren tokian.

 MIEL.A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Garabideren Aditu formazio programan izan zinen udazkenean, hizkuntza biziberritzeko lanean. Zertan da maia hizkuntza zeure bidean?

Haur garaian, nire inguruan maiaz hitz egiten zuten. Pertsona larriak maia elebakarrak ziren. Nik amamarekin ikasi nuen maiaz hitz egiten, eta hura elebakarra zen! Inguruan ere maia hizkuntza zen nagusi. Zuk inori ezer gaztelaniaz eskatu, eta ez zen harritzekoa erantzuna maiaz jasotzea, beste gabe. Gurean, gurasoek maiaz hitz egiten zuten, kasik besterik ez zekiten, eta halaxe hazi zituzten bi seme zaharrenak. Hirugarren seme-alabaz gero, berriz, gaztelania sartzen hasi zitzaizkigun. Hor bada datu jakingarri bat, hala ere. Gauza ez zen besterik gabe aldatu.

Zer izan zen tartean, jakin baliteke?

1960ko hamarkadako kontuak dira. Herrian lantegi bat itxi zuten, komunitatearentzako diru-iturri zena, eta, orduan, gizonak hirira jotzen hasi ziren, emakumeak etxean utzirik. Eta hirian, gizon haiek gaztelaniaz hitz egin beste erremediorik ez zuten. Garai hartantxe erabaki zuen gure aitak etxeko txikienei gaztelaniaz hitz egitea. Hortaz, gurasoek seme-alaba nagusiak maiaz hazi zituzten, eta ni eta nire atzetik jaio zirenak, aldiz, gaztelaniaz. Hala ere, gaztelaniaz hitz egiten nuen arren, nire egitura mentala maia zen. Unibertsitatera hasi nintzenean ohartu nintzen horretaz.

Zer esan nahi duzu? Zertaz ohartu zinen unibertsitatean?

Hasteko, asko kostatzen zitzaidan gaz-

telaniaz ezer idaztea. Nire tutoreak esaten zidan: "Tartzanezkoa idazten duzu!" [Tartzan fikziozko pertsonaiak bezala]. Eta nik, neure artean: "Zer esan nahi du, ordea?!". Eta, nonbait, ez nuen gaztelaniaren hitz ordena errespetatzen; neure erara baliatzen nituen subjektua, aditza eta objektua. Gogoan atxiki dut zera hori, "Tartzanezkoa" idazten nuela, alegia, baina salbaia nintzela eta beste gauza asko ere esaten zizkidan. Ohartu nintzen maiaz hitz egiten nuela, edo amamaren altzoan ikasitako maiaz hitz egiten banekiela.

Unibertsitatera sartzean ohartu zinen.

Bai, hogeiren bat urte nituela. Hamaika urte nituen, esaterako, zapatisten altxamendua gertatu zenean, eta nire anaie-



Yamili Chan Dzul

SANAHCAT, YUCATAN,
MEXIKO, 1987



Antropologoa da, maia komunitateko kide bere herrian, militante eta aktibista, U Yich Lu'um eta Pékbal Waye' erakundeetako kide, besteak beste. Garabide Elkartearen hizkuntza biziberritzeko Aditu formazio programan parte hartu zuen joan den udazkenean, eta orduantxe hitz egin genuen berarekin. Hizkuntzaz hizketan hasi, eta, elkarrizketaren harian, Yamilik erakutsi zigun hizkuntza minorizatuko hiztunak darman karga pisuaz. Are zama astunagoa emakume indigenaren kasuan.

tako bat mugimenduko militante izan zen. 17 urtetan, berriz, neure buruari galdezka hasi nintzen: “Zer da, ordea, indigena kontu hau? Zer dela-eta erabiltzen du *huipil*-a [brusa brodatu luzea] gure amamak? Zer dela-eta du gure aitak larruazal kolore hori? Zer dela-eta ez daki gure amak gaztelaniaz behar bezala hitz egiten? Zer dela-eta erabiltzen zuen aitaitak *mandil*-a? [mantala]” ... Galderak bata bestearen ondotik zetozkidan! Hamazazpi urte nituela neure buruari egindako galderak indar handia hartu zuten hogeitau urte nituenerako.

Antropologia ikasketak egin zenituen, dakigunez.

Bai, eta inoiz baino nahasiago nengoan, nire galderen erantzunik den gutxiena ere ez bainuen! Eta, bidean, emakumeekin topo egin, eta feminismoa ezagutu nuen, eta emakume indigenak. Esaterako, mugimendu zapatistak horixe erakusten zuen, emakumeen adorea. Andre haiek hitza zuten, eta, bestalde, ni bezalakoak ziren, eite berekoak! Perfil bera genuen, kolore bera, garaiera bera... Zer edo zertaz ohartu nintzen, duda gabe, zeren eta, halako batean, gurasoei esan bainien: “Aitta, amatxo... hemendik atzera niri maiaz hitz egin”. Sekulako aurkikuntza egin nuela iruditu zitzaidan, ohar-tu bainintzen maiaz hitz egiteko gauza nintzela! Ez nekien maiaz banekiela!

Ez zenekien bazenekiela...

Badirudi korapilo bihurria askatu zenuela.

Oso inportantea izan zen, eta liberatzailea, hiriburura itzuli nintzenean, eta fakultatera sartu, ez bainuen dudatu: “Herri jakin batekoa naiz; are, herri jakin batena naiz, nire aitaita-amaena naiz... Badakit zergatik erabiltzen duen amak *huipil*-a, baita zergatik diskriminatzen gaituzten neska eta emakume indigenok!”. Eta horretaz jabetzeak bihotza urratu zidan behin eta berriz.

Zertan zen diskriminazio hori?

Eskolan, adibidez, ez ziguten uzten jantzen guk nahi bezala: *pil*-a, alegia, oraintxe jantzia dudana brusa hauxe.

Bestalde, nire komunitatean ez zegoen erdi- edo goi-mailako eskolarik, eta goragorik ikasi nahi izanez gero, hiriburura migratu beste erremediorik ez genuen. Hara orduko, ikaskideen eta irakasleen txantxa, iseka eta burla mingarriak jaso behar! Batean, gure maia deituen kontura —eta Chan Dzul dira nireak!—, eta, bestean, berriz, gure sorterriaren aldera, gu herri txikikoak bainekin. Seinalatu egiten gintuzten, seinalatuak ginen, eta seinalatuak sentitzen ginen. Eta, arestian esan dizut, maiaz hitz egiten banekiela ohartu nintzen eta, era berean, ez nuela espainolez zuten hitz egiten.

Gaztelania Tartzanezkoa, irakasle hark esan zizunetz. Eta badakigu nola hitz eginarazten zieten Tartzan eta Janeri.

Horixe! Gaztelania Tartzanezkoa! Karkar! “Ez dakit maiaz hitz egiten, ezta gaztelaniaz ere! Nor naiz? Nola idatz behar dut tesia?”. Baike, neke handiz idatzi nuen, leherrenak eginda ere ezin erre-dakzioa mendean hartu! Nire historia pertsonala ez ezik, askorena ere bada kontatzen ari naizena. Nire anaiaren belaunaldiak, esaterako, historia mingarri horixe bera bizi izan zuen, baina, haren kasuan, arrazakeria eta diskriminazioa askoz pisuagoak izan ziren. Nik esango nuke orduko pertsekuzioak apaltzera egin duela, arrazakeria eta diskriminazioa ez direla garai bateko heinera heltzen, eta ikasle indigenak maila goragokoetara heltzen ohi direla.

Arrazakeria eta diskriminazioa garai batekoak ez badira ere, halakorik bada oraindik?

Bai, baina geu ere indartzen ari gara, Pékbal waye'-z [“Mugimendua hemendik”] ari naiz, esaterako: sare soziale-tan gaude, lotsarik gabe erakusten ditugu geure aurpegiak, eta, hiriburuan ere, Meridan, garen bezala erakusten ditugu geure buruak, edo lehengo lotsarik gabe, bederen. Kantuak egiten eta zabaltzen ditugu. Ahalduntzen ari gara, taldearen babesera bildurik, nor bere gisara jardunda ezinezkoa baita. Esanak esanagatik ere, alferrik dabil-tza, hiriburua zuria da oraindik, arrazista. “Merida zuria” esaten diogu guk.



“Merida zuria”. Ba ote?

Bai, elite indartsu batek agintzen du han oraindik, eta halakoxe erabakiak hartzen ditu. Baina esperantzatik ere hitz egin nahi izaten dut nik, hizkuntza biziberritze-ko mugimendutik, eta beste hamaika mugimendutatik. Eskubideak geureganatzen ari gara, eta hainbat espazio irabazten. Eta guk espazioa irabazi, eta eliteak galdu, baina, jakina, eliteak elite izan nahi du beti, ez du ezer galdu nahi izaten. Aitzitik, gero baino gero indartsuagoa izan nahi du. Eta egoera zaila da guretzat, botere politikoak ez baitu maia herria gogoan hartzen, baina ezta ezertarako ere! Pentsatu ere ez maia herriarekin ez maia herriarentzat ezer egitea.

Ordezkarik politikorik baduzue nazioan, eskualdean, herrian?

Beti bada baten bat, edo baten batzuk, kargu politiko inportantea duenik. Baina horiek ere nekez eutsi ahal diote gure komunitateen aldeko politikak sustatzeari. Edo proiekturen bati ekinda ere, ez dute lorzen hari segida ematerik. Mikro-, makro- eta erdi-mailan gertatzen zaigu, herrian, nazioan nahiz eskualdean: gure ordezkariek –formazio politikoa jasotakoak–, bateko eta besteko erakundera heldu, eta delako haren funtzionamendura egokitzten dira. Halaxe gertatu zaigu, adibidez, Herri Indigenen Institutu Nazionalean ari diren zenbait kiderekin –eta militante zapatista izan ziren–, edo Nazio Biltzar Indigenakoekin. Egokitu egiten dira, eta, azkenean, komunitateak galdu egiten du

haiengan jarritako konfiantza, eta galtzen ditu esperantza guztiak. Nazio Biltzar hori jaiotzen lan egindakorik, adibidez, gaur egun... Tira, hobe dut isildu.

Zeure komunitatean, genero arduraduna ere bazarela salatu digute. Zertan da zure lana?

Uf!

Kar-kar! “Uf!”.

Bai, “uf!”. Ezin niezaioke galdera horri erantzun, ni neu naizena edo egiten dudana bazterrera utzirik. Gure organizazioan, U Yich Lu’um-en, nesken eta emakumeen kontrako bortxakeria ikusirik, hitz egin nahi izaten dugu. Neska eta emakume horietako askok guregana jotzen dute, hone-taz edo hartaz galdezka, edo zenbait gauza eskatzera. Besteak beste, horrexek ekarri nau Garabideko egonaldira, komunitatean ikasi dudana gauza batek, generoaz hitz egiteak, jendea aztoratu egiten duela. Deseroso zaio.

Zer zaio deseroso, zehazki?

Nork bere pribilegioen gainean pentsatzea. Nire intenzioa, aldiz, horretaz gogoetatzea da. Genero hitza ez bazaigu gus-tatzen, asma dezagun beste izenen bat, baina negoziatzina da gizon-emakumeen arteko harremanaz gogoetatu beharra. Identitateen gainean hitz egin behar dugu, gazteen artean diren dibertsitate sexu-generikoei buruz... Gai hauez hitz egiten hasten garenean, beti jasotzen dugu hala-ko erantzunen bat. “Nik batzarretan hitz



TOKI SEGURUA

“Nik neure komunitatea dut toki segurua: familia. Eta, hala ere, familia osoak ez daki maiaz, eta, beraz, bizpalau lagun ingurukoak kutsatzen saiatzen ari gara: ilobak, gainerako senideak, auzoak... Askotan, maiaz hitz egiten zekitela egundo pentsatuko ez nuen jendea da. Nire toki seguru horretatik landa, hutsaren hurrena da gure hizkuntzaren presentzia”.

ETSAIAK

“Emakumeok ez dugu etsai gehiago behar, ez gara etsaiak sortzeko lanean ari. Aitzitik, gogoetatu egin behar dugu, geure buruak ulertzen saiatu. Hitz eginez helduko gara geure bizipenak behar bezala dimentsionatzera, gizon-emakumeen arteko harremanak, dibertsitateak eta gainerakoak ulertzera. Lantegi handia da, baina horrelaxe dira gauzak”.

Azken hitza

ZERU ETA SUGE

“Yamili dut izena. Maia klasi-kotik dator, eta *zeru* eta *suge* ditu esanahiak.

—Aukeran hobe zeru, suge baino, ala?!

—Ez uste! Sugea oso inportantea da gure tradizioan, urtokien zaindari baita. Garai bateko maia kulturaren, sugea erreferente nahitaezkoa zenuen”.

egin nahiko nuke, baina inork ez dit kasurik egiten”. Eta, guk: “Eta, adiskidea, norekin partekatzen duzu zeure kezka hori?”. “Inorekin ez, inork ez baitit kasurik egiten, ezta familiak ere!”. Eta gure gogoetaren puntu bat gehiago: ez dugu etsirik egin nahi. Gizonak ez dira gure etsai, burkide eta gogaide ditugu, eta, beraz, jar gaitezen, hitz egin dezagun, senti gaitezen deseroso, egin dezagun negar elkarrekin... Egin dezagun behar dena.

Hizkuntza biziberritzeaz jardutea da gauza bat, planteatzen ari zarena, beste bat. Elkarbanatu duzu gogoeta hori Garabiden kide gertatu zaizkizunekin?

Uf!

“Uf!”, berriz.

Bai... Zaila da gai hauei buruz hitz egitea, deseroso da. Hizkuntza kontzientziaz hitz egitea, bai, erraza da, baina gizon-emakumeen arteko harremanak zertan diren arakatzeari, aldiz, guztiz nekeza, nork bere burua aztertzea ariketa deserosoa delako. Hala ere, badut esperantza, beste zenbait kide ere –izan emakume, izan gizon– horixe bera esan dutelako: “Hitz egin dezagun horretaz ere! Hizkuntza biziberritu nahi badugu, gure harremanak zertan diren ulertu beharra dugu!”. Garabideko egonaldian, zenbait irakaslek –emakumezkoak, oro har–, ariketak ere proposatu dizkigute, erakutsiz hizkuntza minorizatuen egoera eta emakumeena eskutik doazela, bietan ere menderatzaileak eta menderatuak baitaude; batzuetan pertsonak dira, beste batzuetan organizazioak.

Mexikotik zatozkigu, eta nahitaezkoa da gaia: Ciudad Juarez, emakumeen hilketak.

Emakumeen kontra jotzeko guztizko intentzioa dago, emakumeen eta neska txikien gorputzen kontra jotzeko... Ez alferretan eman diote feminizidio izena, ezta? Gure herri mugimenduak ahultzeko estrategiaren parte da emakumeak eta haien gorputzak erabiltzea, laidoztatzea, hiltzea. Boterea beti da botere, eta laguntzaile ditu esfera politikoa, narkotrafikoa, delikuentzia, estatu militarizatu... Botereak agintzen du, eta botereak osotasun bat du, bera da dena. Emakumeak akabatzea, beraz, organizatzen ari diren komunitateen kontrako estrategia da, errealitate jakin batzuk eraldatu nahi dituzten komunitateen kontrako, eta emakumeen gorputza ez da estrategia

horren parte bat baizik. Berdin egiten dute enpresek ere.

Multinazionalek, esan nahi duzu?

Boterearekin bat eginak bizi diren enpresez ari naiz. Komunitate zaugarriak bizi diren tokietara etortzen dira, eta komunitateok are zaugarriago egiten dituzte, hango langileen bitartez, emakumeak gutiz gehienak. Biolentzia gogor hori Ciudad Juarez hasi zen, Mexiko iparraldean, eta, ezari-ezarian, hegoalderantz egin zuen, eta hego-ekialdera heldu zen, Yucataneraino. Biolentzia nazio osora hedatzen ari da, emakumeen eta neska txikien kontra jotzen du. Magno botere hori, bestalde, komunitateen baitan erreproduzitzen ari da, pentsamendu patriarkal eta matxistaren bitartez, alegia.

Adibidez?

Adibidez, emakumeak familiaren eremuan bortxatzen dituzte: osabak dira, edo aitak, edo aitaitak. Biolentzia patriarkal bera erreproduzitzen da komunitateetan! Hargatik zaigu baitezpadakoa harremani buruz hitz egitea, emakumeok bortxa horretatik libra gaitezen. Tira, gure kasuan, emakume gara, indigena gara, prekarizatu gara! Horixe da gure panorama! Gure lurraldean oinarriko eskubideak ez dira betetzen. Nazioarteko lege, itun eta tratatuen babesa dugu, Mexikok denak baititu sinatuak... baina sinatutakorik ez du betetzen!

Yamili... beldurra sentitzen duzu?

...Mmm... Ona, galdera!...

Bat bada ere, ona egin behar izaten dugu.

...Eta bai, beldurra dut. Gazteen artean hainbeste depresio eta antsietate izatea, ez da zorizkoa, ez da kasualitatea. Gazteek sentitzen dute megaproiektuak beren lurretara heltzen ari direla. Eta, arestian esan dizudana, urruneko biolentzia gero baino gero hurreago dugu, eta nazio edota estatuaren baitako megabiolentzia hori –gubernua, narkotrafiko, militarizazioa–, familien barrura sartzen ari da. Beldurra dut. Garapen olde handi hauek ez dira berriak, baina beldur naiz ez ote diren gure lurrean gero eta barrurago sartuko.

Baliteke horrelakorik gertatzea?

Beldur ematen dit. Esaterako, gure komunitateak mendi eremu bat du, non behar duguna ereiten dugun. 11 familia

bizi gaituzu, bi komunitatetan banaturik. Gero eta gehiago izan nahi dugu, baina beldur ematen dit botereak gu kapsulatzea, eta gero eta kapsula txikiagoetan bizi behar izatea, eta azkenean desagertzea. Horixe gertatzen da hizkuntzaren biziberritzearekin ere, gero eta kapsulatuago gaudela.

Biltzerik ez duzue bateko eta besteko erakundeak, eta indar egin?

Zaila da biltzea, biolentzia hortxe baita beti. Gu, esaterako, ezin gintezke Mexiko Hirira joan, ezta San Cristobalera ere –gure lurraldetik hurre badago ere, 13 ordura–, han eta hemen komunitate zapatisten kontra atentatuak egiten ari baitira. Alferrrikakoak dira nazioarteko tratatuak, giza eskubideen aldeko deiak... Kazetariak etortzea dugu burubide bakarra, zeren nazioartea begira dagoenean baizik ez da biolentzia-maila apaltzen. Iloba dut, esaterako, esanez bere burua antolatzeke beldurrez bizi dela, etorkizunak zer ekar lezakeen ez dakielako. Edo koinata batek esandakoa: “Yami, seme-alabak ditut, ezin naiz nazioaren martiri izan, desagerraraz nazakete”.

Zuk beldur hori izan duzu?

Momentu jakin batzuetan, bai. Biolentzia hori guregana heltzen ari da, nire zenbait lagunek bizi izan du. Manifestazioetan-eta, Yucatanen, gure hurrehurrekoak kartzelatu dituzte, justifikaziorik gabe, beti. Guk babestua gaudela sentitzen dugu, komunitatearen barruan bizi garelako. Neure komunitatea dut nire toki segurua, eta akabatzen ari da. Ikaragarria da: toki seguru hori ere, gero baino gero txikiagoa da. Zenbaitetan, gure organizazioak ez du *amparo*-rik sinatzen [megaproiektuen kontrako lege proposamenak], geure buruak arriskuan ez jartzeagatik.

Hizkuntzaren biziberritzeak ekarri nau zuzana, baina egia latzik kontatu didazu...

Ez da erraz kontuok inorekin hitz egitea. Garabiden egon naizen honetan ere, konfiantza handi-handiko kideekin baizik ez dut hitz egin gai hauez. Gainera, kontuok ez dira arinkeriaz esatekoak... Kontuan izan behar da oso lur kolpatuetatik gatzela. Gaiok partekatu beharko genituzkeela? Dudarik gabe, baina beti ez dago astirik, eta, bestetik, ezin dira beste gabe esan, ez publikatu, ez parean pasatzen den lehenengoari kontatu. Lankide minenen artean hitz egin, bai. Bestela, ez. ●



Etxegabetzeen aurrean, irabazteko antolatu



JESÚS RODRÍGUEZ
DIRECTA-KO KAZETARIA

Azken egunak garrantzi handikoak izan dira Bartzelonan, etxebizitzaren aldeko mugimenduarentzat eta espekulatzaileen aurkako borroka-arentzat. Urtarrilaren 28an, polizia-armada batek Raval auzoko Massana Zaharri [zentro sozial okupatua] eraso egin zion goizaldean, aurrez abisatu gabe, Bartzelonako Udalak antolatutako tranpa juridiko baten bidez. Tranpa horri esker, “herri-kontrolpeko espazio” hori osatzen duten erakundeei jakinarazteko legezko betebeharra saihestu zuten. Albert Batlle udaleko erregidoreak, Jaume Collboni alkatearen taldeko hegal gogorrena denak, 40 urte baino gehiago daramatza kargu publikoan, eta aurreikusi zuen horrela ez zela gatazka agerian jarriko. Ziurtatu zuen “espeditentea itxi” besterik ez zela egingo. Battleren ilusioa apurtzeaz arduratu ziren, ordea, ehunka manifestari goizean, gorputzekin eta beldurrik gabe aurre eginez Guardia Urbanoaren eta Mossos d'Esquadraen lerroei -80 urteko batek lesioak jasan zituen borra kolpeen ondorioz-, eta milaka arratsaldean, ordu batzuek Rambletako bake turistikoa hautsiz. Hurrengo egunean erregidoreak eraikinaren fatxada koloretuaren gainean pintura gris jarri zuen, errealitatea ukatu nahian. Gazte Antolakunde Sozialistako -espazioko entitateetako bat- bozeramaile batek ohartarazi zuen beren borroka iraupen luzeko lasterketa dela, eraikin bat galdu dutela baina helburua kapitalismo espekulatzailearen aurkako iraul-

Auzotarren determinazioak, Maizterren Sindikatuaren laguntzak eta ehunka pertsona eta eragilek borrokan bat egiteak historiaren bilakaera aldatu dute

tza dela. Energia eta denbora asko dute aurretik Massana Zaharreko gazteek; Batlle jauna naftalina usaintzen hasi da.

Bi egunera, egutegia letra potoloz markatuta zegoen: Bartzelonako Eixample barrutiko Casa Orsola eraikineko bizilagun Josep Torrent etxegabetzeko saiakera. Maizterren Sindikatuak erronkatzat hartu zuen: hiriko etxebizitzarako sarbidearen etorkizuna Calabria kaleko eraikin hartan erabakiko zen. Eta hala izan zen. Lioness Inversiones higiezinaren sozietatearekin ez ezik, Kataluniako patronalarekin ere ari ziren eztabaidan. Foment del Treball-ek [Kataluniako patronal nagusia], errentarien eta espekulatzaileen ordezkari gisa, Via Laietana kaleko egoitza handitik, komunikatu batean ohartarazi zuen ekintzaileek borroka irabaziz gero jabetza pribatuaren eskubidea arriskuan egongo zela Bartzelonan.

Duela hiru urtetik jasan dute Torrentek eta eraikineko beste hainbat bizilagunek kanporatze saiakera. Egun dituzten 700 edo 800 euroko alokairu kontratuak 2.500 edo 3.000 eurora pasako lirakeke, sasoiko alokairu formatuan, turistei eta enpresa handietako exekutiboek zuzenduta. Irabazi-negozia, topera. Auzotarren determinazioak, Maizterren Sindikatuaren laguntzak eta ehunka pertsona eta eragilek borrokan bat egiteak historiaren bilakaera aldatu dute. Urtarrilaren 31n epaitegiko segizio batek exekutatu behar zuen etxegabetzea, baina ez ziren atera ere iritsi. 2.000 pertsona baino gehiago zituzten zain espaloietan, eta dozenaka ari ziren oso zail jartzeko prestatzen teilatuan. Bitartean, La Llogatera TVko sei telebista kamerak zuzenean eman zuten erresistentzia, sare sozialen bidez. Goizeko lehen orduan 30.000 pertsona ari ziren jarraitzen pantailen bidez. Etxegabetzea bertan behera geratu zen bideraezina zelako, eta hiru egun geroagoko goizaldeko bostetara atzeratu zuten, baina elur bola martxan zegoen. Argi zegoen hitzordu berrira milaka pertsona joango zirela. PSCk ahal zituen fitxa guztiak mugitu zituen saihesteko beste #EfecteCanVies bat edo Urquinaonako borroka bat. Casa Orsolaren jabeak orain iradoki du eraikina salduko duela, eta dagoneko garaipenaren usaina sumatzen da aktibismoaren artean. Irabazteko, antolatzeke borondatea erdigunean jarri den egun batzuetako lezioak. ●

Despremu deprimituaren ondarea



KATIXA
DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Berriki landu ditut klasean Etxahun Barkoxeren kobla eder eta hun-kigarriak. Gaizo gizona! “*Edertasunez praube*” sortu zelako hasi zitzaizkion etxeko nahigabeak, baina hamazazpi urtetan zen pulunpaka sartu zorigaitzaren itsasoan, maite zuen Marie Rospide doterik gabeko neskatoa eta horrek sabelean zekarren semea utzi behar izan zituelarik, ontasuna zuen Engrazi Pelento-rekin ezkontzeko. Baina andre horrendako ere, dio Jean Haritzelharrek bere tesian, ezkontza behartua izan zen, hura, bertze gizon batez maitemindua zelako. Etxahunek kontatzen digu osabak “*desprimützera*” erabaki zuela, “*primagen xangriti*” zegoela “*hemeretzi*” urtetan, “*hirur etxalte bei[zin] galdü aita-gati*” eta “*amak ere*” ez zuela “*primürazi*” nahi. Horrela frogatu zuen Etxahunek ondoriotasun materialaren zentraltasuna belaualdi arteko elkarbizitzan, garai-ko euskal jendartean.

Eta hara non ikusten dudan, *Le 1 hebdo* astekariaren urtarrilaren 15eko zen-

bakiaren gai nagusia dela, hain zuzen ere, ondoriotasuna, gaur egun. Alabaina, du idazten Julien Bisson erredakzio zuzendariak, soziologoek diote gero eta zailago zaiola norbanakoari bere lanetik aberastea eta aita-amek utzitako ondarearen esperantzan daudela jende gero eta gehiago, beren lanetik oparotasunik atera ezinean. Etxahunen bizipen tragikoa eta Balzac-ek marraztu XIX. mendeko *Giza komedia* berriz ikus-tekoak genituzkeela ematen du...

Bizkitartean, ondarea ez da materiala bakarrik izaten: ondarea, kulturala ere bada. Kontu horretan, xantza handia daukagu, euskaldunok, transmisio linguistiko eta kulturala ez dugulako eten familietan, neurri batean, bederen. Lionel Arnaud sozio-politologoak erakutsi du, hainbat artikulutan eta Euskal Kultur Erakundeak babesten duen Etnopoloaren iazko kolokioan, XVIII. mendetik hasita, Frantziak pixkanaka eskua hartu duela kultura alorrean, estatuaren eremu osoan, ekintza pu-

blikoen bidez erakutsi nahian kultura alorrean badaudela normak, badagoela hierarkia bat. Egun, dio Lionel Arnaud-k, ekintza kultural ofizialek bereizketari hori gaingitu nahi dute, eta herritar soilen sorkuntza gaitasunak sustatu. Baina, anartean, gaitzak izan du eragin: Frantziako bertze kultura zapaldu gehienetan, kultura herrikoia desagertu da, edo hilzorian da.

Hori, aski argiki ondoriozta genezake plumas.occitanica.eu linean irakur daitekeen aldizkari literario okzitaniarrak atera duen azken zenbakitik. Antzerki okzitaniarra, bretoaia eta korsikarra ditu aipagai. Ageri denez, ez da gehiago plaza ikusgarri herritarrik, lurralde horietan: antzerkigintza bideratzen dute talde profesional edo amatur batzuek, zailtasunak zailtasun, diruztatzaile publikoen irizpide administratiboaren arabera proiektuak eginez, anitzetan. Hego Euskal Herrian, antzerki mundua egituratu eta instituzionalizatu da, bizirauteko. Iparrean, berriz, herritarrek dute oraino, parte, biziarazten, nahiz eta, Peio Berterretzek zioen bezala ARGIA, 2.899 zenbakian, gero eta gutiago ematen dioten zentzu sozial eta politiko akuilatzaileak.

Etxahun Barkoxeren bizitza tragikoa izan zen, ondoriotasun materialaren kontua izan zuelako galbide, baina ondorioz erdietsi zuen kultura immaterialak lagundu zuen bizirauten eta, egun, haren koblak sartuak dira gure ondasun kolektiboan. Guri dagokigu, orain, ondasun kolektibo horren zaintzea. Ea, ba, datozen ihauteri garaiko ekitaldi herrikoiak kultura transmisioren lekuko izanen diren, “*ahaide delizius*” zonbaitetan bideratuz bihotz berotzeko itxaropen pixka bat. ●



MAIDER LETURIAGA

Aroztegiaren silogismoa



IÑAKI BARCENA
EKOPOL ETA
EKOLOGISTAK
MARTXANEKO KIDEA

Silogismo baten argumentuak hiru proposizio ditu, eta horietatik azkena nahitaez ondorioztatzen da beste bietatik. Logika deduktibo horrekin aztertu daiteke, nire aburuz, Nafarroan gertatzen ari den Aroztegiako gatazka sozioekologiko luze eta traumatikoa.

Tesia: Baztango Lekaroz herri txikian (289 biztanle, 2022an) Palacio de Aros-teguia SL enpresak (Hilton multinazionalaren atala) makroproiektu urbanistiko bat egin nahi du. 228 txalet, hotel bat 129 gelarekin eta golf zelai bat. Horretarako 45 nekazaritza hektarearen birkalifikazioa lortu zuen eta obrak 2021ean, pandemia garaian, hasteko asmoa zuen. Proiektu horren alde agertu dira UPN, PSN eta Geroa Bai.

Antitesia: baztandar ugari agertu da proiektuaren aurka. Epaitegietan, Udalean, Mankomunitatean eta kalean. Pare bat erreferendumek (Lekarozen 2009an eta Baztanen 2016an) argi utzi dute bertoko herritarren borondatea eta iritzia. Baina 2021eko apirilean obrak hastear zirenean, zuhaitzen mozketak eta hondeamakinen lanak geldiarazteko desobedientzia zibila antolatu behar izan zuen Aroztegi taldeak, ehunka lagun gazteekin batera. Eta obrak bertan behera gelditu ziren.

Sintesia: merkatu askatasuna eta estatuen autoritatea desobeditzen eta

errefusatzeko direnean... errepresioa eta zigorrak dira botika arrunta. Eta ohikoa da buru batzuk bereiztea ere, kalteak erduzko moduan ordaintzeko. Enpresak 43 milioi euroko kalte-ordaina exijitzen du eta Nafarroako Auzitegi Gorenak hogeituro urteko kartzela eta 56.000 euroko isuna eskatzen ditu zazpi auzipetuentzat.

Joan den otsailaren 1ean Iruñean egon ginenok mezu sendo bat jaso genuen: “Ez dira zazpi, herri bat gara”. Eta kalean milaka lagunengaz giza-gorputz-luze horrek ez zuen duda izpirik ematen: herri baten erantzun sendoa eta zuzena, enpresarentzat eta administrazioarentzat. Aspaldiko partez, ohikoak izan dira euskaldunon erantzun kolektibo anti-errepresiboak, gure aktibisten kontrako erasoen aurrean. Horrek herri bizidun egiten gaitu.

Krisi ekosozialaren garai gogorrean bizi gara eta estatu kapitalistaren eta merkatuaren kolpeak ez dira baretuko, aldiz, bizitzaren aurkako proiektu zerrenda handitzen ari da euren agenda nekropolitikoa, azken egitasmoak armagintzan eta energia nuklearrean (Zedarriak txostena).

Euskal ekologismoaren eta beste herri mugimenduen erantzun bateratua inoiz baino beharrezkoagoa da. Aroztegi dugu adibidea. ●

Gainbabesaren desbabesa



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Elkarrizketa berritu dugu fakultateko idazkaritzan, auskalagarrenez: urruti daude, euren matrikula egiteko, ikasleak bakarrik etortzen ziren garaiak. Aspaldixko aldatu zen joera, eta gurasoek –nabarmenago amek– gero eta paper aktiboagoa hartzen dute seme-alaben unibertsitateko matrikulatze prozesuan. Halaber, gero eta telefono bidezko arreta handiago ematen omen zaie gurasoei –amei gehiago–; eta zenbaitetan, delako informazio bat eskuratuko ez ote duten beldurrez, ikasle plantak ere egiten omen dituzte guraso batzuek telefonoaren bestaldean.

Beldurraren kultura ikertua duen Frank Furedi soziologoak galdera egin zuen duela zenbait urte: Zer gertatzen ari zaio unibertsitateari? Horri erantzuteko, unibertsitate anglo-saxoiaren infantilizazio prozesua aztertu zuen liburu batean. Nago geuk ere antzeko galderaren bat egin beharko genukeela Euskal Herrian; eta ez bakarrik fakultateetako idazkaritzetan gertatzen direnak haien testuinguruan kokatu eta ulertzeko.

Ziurgabetasun globalaren sasoian, autonomiaren kontrako eta kontrolaren aldeko jarrerak gailentzen ari direla dirudi. Eta, paradoxikoki, etengabe babes bilatzen duen gure gizarteak desbabestu egiten du aldi berean. ●

Harreman publiko-komunitario-kooperatiboak eraikitzeaz



BEÑAT IRASUEGI IBARRA
KOOPERATIBISTA

Gure lurraldeetan eta bizitzetan sortzen diren behar, desio eta ekimenen inguruan gero eta gehiago entzuten dugu harreman eta proiektu publiko-komunitarioak landu beharraz, eta pozgarria da benetan, merkaturik gabeko gizarte antolaketarako ezinbesteko eredua baita. Baina kontzeptu politiko huts bihurtzeko arriskuarekin, beti bezala *zer* eta *nola* galderei erantzun behar diegu.

Karl Polanyi-k ederki azaldu zuen, herrigintzan eta kooperatibagintzan gabiltzanok oso modu intuitiboan bada-kiguna, gizartea ez duela merkatuak gidatzen eta antolatzen; eta utopia liberal hori, teknokapitalismoaren garaiotan ere, erabat disfuncionala eta bizitzaren kontrakoa dela. Zerbait erakutsi badaitteke da, estatu eta merkatu forma ezberdinen artean, komunitatearen antolaketak izan dela gizartearen antolaketaren erdigunea, humanitatearen historia luzean zehar.

Harreman eredu publiko-privatua hegemonikoa den gure errealitatean, eredu publiko-komunitarioa da kezka sortzen duena, kapitalismoaren Troiako

Publiko-privatuaren dikotomia onartzeak praktikaren eta diskurtsoaren kaiola neoliberallean ondo lotzen gaitu, berdin du publikoaren edo pribatuaren aldetik egiten dugun

zaldi ezkutu bat balitz bezala, Agamemnon eta bereak gure estatu, harreman eta bizitzetan erabat barneratuak ditugunean. Publiko-privatuaren dikotomia onartzeak praktikaren eta diskurtsoaren kaiola neoliberallean ondo lotzen gaitu, berdin du publikoaren edo pribatuaren aldetik egiten dugun.

Gizartearen antolaketa komunitarioa garatzeko, berriz, herrigintzaren eta

langile klasearen tresna bat erabiltzeaz seriozki hitz egin beharko dugu; kooperatibismoaz ari naiz, bai. Lurralde eta proiektuetan, harreman ez merkantilizatuz ariko bagara, eta *nola* galderari erantzunez, ardatz kooperatiboa gehitu beharko diegu, izaera publiko-komunitarioko pentsamenduari eta praktikari.

Adibideak baditugu, kooperatibetan eremu publikoa eta komunitarioa txertatzen dituztenak, berriki herri kooperatiba eta energia komunitateetan, edo kooperatibek lurraldearekin eta jendar-tearekin konpromisoaz, eraikitzeke gai diren interkooperazio harreman konplexuetan ikusten ditugunak.

Kapitalismoak bizitzaren aurka egiten duen egiturazko merkantilizazio prozesuan, eta estatuaren, beraz, esparru publikoaren, apropiazio autoritarioaren aurrean, eremu eta proiektu komunitarioak baliabide materialez hornitu, eta egitura publiko-komunitario-kooperatiboekin finkatzeko ordua da. Ezin dugu teoriaren zingiran ito, praktika eraldatzaileak aitortu eta zabaltzeko ordua da, lurraldeak, harreman materialak eta bitzita duinak josteko garaia. ●



Erosten duzun produktu bakoitzarekin, ekarpen ekonomikoa egiten diozu Mbolo Moye Doole elkarteari. Batez ere Senegaldik etorritako migratzailez osatutako Bilboko kale-saltzaileen elkarte da Mbolo.

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45

Jertsea **28 €**



Poltsa **10 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Hankamotz jaiotako Osasun Mahaia herrenka iritsi da azkeneko fasera



Bost hilabete pasatxo beteko ditu Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako Euskadiko Osasun Itunaren Mahaiak, eta martxorako bukatuta nahi zuten eztabaida prozesuaren helmuga bileraz bilera urruntzen doa. Ezarritako metodologiak, mahaira deitutako erakundeen zerrendak, kanpoan utzitakoenak, jorratutako edukiek eta jorratu gabekoek kritika ugari piztu dituzte osasun publikoa defendatzen duten hainbat eragileren artean.

 JONE GARTZIA GERRA  JAIZKI FONTANEDA / FOKU



Iraila hasieran jarri zuen abian Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Osasun Itunaren Mahaia, “osasun-sistema publikoaren bilakaeraren inguruan herritarrek, profesionalak eta hainbat kolektibok dituzten kezak aztertze-ko”, Imanol Pradales lehendakariaren hitzetan. Hiru etapatan banatutako eta Alberto Martínez Osasun sailburuak gidatutako prozesua martxorako bukatzea aurreikusten zuen lehendakariak, baina gero eta gehiago dira mahaiarekin kritiko agertu diren eragileak eta egiturazko aldaketarik ekarriko ez duela dioten ahotsak.

ELAk hasieratik errefusatu zuen mahaiaren parte hartzea, ESK sindikatuak lehenengo fasean utzi zuen, eta bigarren ataleko testua ez dute oraindik babestu ez LABek ez Sumarrek. Horrez gain, hasieratik mahaitik kanpo utzi zituzten osasun publikoaren defentsan lan egiten duten hainbat herritar eta langile elkar- te. Hankamotz jaio zen mahaia herrenka iritsi da azkeneko fasera, hots, estrategiak zehazteko aldira, eta ikusteke dago benetan osasun sistema onbideratuko duten neurri zehatzak hartzeko gaitasunik izango duen.

Euskadiko Osasun Itunaren Mahaia deritzonaren lehen bilera 2024ko irailaren 5ean egin zuten, Imanol Pradales lehendakaria eta Alberto Martínez Osasun sailburua buru zirela. Lehendakariak elkarlanaren garrantzia nabarmendu zuen “sistema eraldatzeko eta lehen mailako osasun-laguntza bermatzeko”, eta azaldu zuen “itxaron-zerrendak murriztetik harago, sistemak osasunean

Metodologiak zehazten du fase batean adostutako txostenarekin bat egin ezean, eragileak ezin direla hurrengo fasera igaro. Gainera, “pribatutasunaren aitzakiapean” eragileek ezin dituzte gainerako parte- hartzaileen ekarpenak ikusi

hezteko, osasuna sustatzeko eta prebentzioa lantzeko” balio behar duela. Halaber, “plantilla sendotzen, baliabideak eta horien efizientzia hobetzen eta beharrezko inbertsioak egiten” jarraitzeko konpromisoa adierazi zuen, lehen bilera hura amaitu osteko adierazpenetan.

HERRENKA DABILEN MAHAIA

Hiru fasetan banatu zuten prozesua: lehen urratsa, osasun-sistemaren diagnostikoa adostea; ondoren, ikuspegia, balioak eta printzipioak zehaztea; eta azkenik, estrategiak finkatzea. Osasun sailburuak Javier Meana Martínez farmakologia katedraduna izendatu zuen mahaia dinamizatzeko idazkari nagusi, eta lehen bilerara osasun-arloko hainbat eragile deitu zituen: medikuen, erizainen, farmazialarien, psikologo- en, odontologo- en, optikoen, optometrizen,

gizarte-langileen, fisioterapeuten, biologo- en eta albaitarien elkargo ofizialetako ordezkariak; Medikuen Sindikatua, SATSE, SAE, alderdi politikoak, sindikatuak, EHU, Deustu eta Mondragon uni- bertsitateak eta Confebask.

Gonbidatuak bezainbeste dira bazter utzitakoak, ordea. ESK sindikatua eta Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataforma (OPAH) ez zituzten lehen bilerara deitu, nahiz eta propio eskatu zuten mahaiaren parte hartu ahal izatea. Sindikatuko ordezkariak bigarren bilerara joaten utzi zieten, lehenengoan afora beteta omen zegoela esan baitzieten. OPAHkoei, aldiz, ezezkoa eman zieten, eta mahaiaren lantzen ari ziren kontuen berri emateko biltzeko aukera eman zien idazkariak.

OPAHko bozeramaile Jose Ignacio Martínez Ortegak salatu du mahaitik kanpo utzi dituztela herritar platafor- mak, osasun publikoaren aldeko elkar- teak (Osalde, Osatzen eta Lehen Arreta Arnasberritzen) eta gaian zer esan handia izan dezaketen kolektiboak, emakumeen taldeak eta pentsiodunak, kasurako.

ELAk, bere aldetik, hasieratik adie- razi zuen ez zuela eztabaida prozesuan parte hartuko, “antzezlan” hustzat har- tzen baitzuten eta susmoa baitzuten bertan ez zela “sakoneko aldaketarik” mahaigaineratuko. Hala, lehen faseko diagnostikoa aztertu eta gero ezezkoa berretsi zuten, ikusita egindako diag- nostikoaren arabera “balizko itunak ez duela funtsezko aldaketarik ekarriko osasun zerbitzuan”.



Imanol Pradales lehendakariak abiatu prozesuak hiru fase ditu eta Alberto Martínez Osasun sailburuak gidatua da (eskuineko argazkian). Alboko orrian, parte hartzen ari diren eragileak Mahaiaren bueltan.



IREKIA

Nolanahi ere, eztabaida prozesuaren beraren metodologia kontuan hartuta eta bertan landutako eta landu gabe utzitako edukiei erreparatuta, gero eta gehiago dira mahaia Jaurlaritzaren aurpegia zuritu eta benetako eraldaketarik egitea asmo ez duen dinamika baino ez dela dioten ahotsak. ESK-k mahaia utzi zuen lehen faseko diagnostikoarekin ados ez zegoelako. Izan ere, metodologiak zehazten du fase batean adostutako txostenarekin bat egin ezean, eragileak ezin direla hurrengo fasera igaro. Bigarren fasea ixteko unean, LABek eta Sumarrek adierazi zuten ez zutela printzipioen testua babesten, baina hirugarren fasean jarraitzeko prest agertu ziren. Testua ez zen azken bileran itxi, eta eragileek idatziz adierazi beharko dute ados dauden ala ez.

Otsailaren 26an egingo dute hurrengo bilera. Ordurako, parte-hartzaileek Osasun Sailak proposatutako hamazazpi estrategietako lantaldeetako ordezkariak zehaztu eta ekarpenak egin beharko dituzte. Nolanahi ere, aste hauetan bigarren faseko testuari baiezkota ematen dioten jakinarazi beharko dute, eta

OPAHren arabera, Jaurlaritzaren ardura estaltzeko ke-laino bat besterik ez da mahaia, murrizketak eta privatizazio neurriak ezarri bitartean “bake soziala” irudikatzeko

ikusteke dago ea horrek kanpoan utziko dituen kritiko agertu diren taldeak, aurreko faseetan gertatu bezala.

GARDENTASUN FALTA

OPAHko ordezkari Martínezek argi du Osasun Sailak indarrez ezarritako metodologia “antidemokratikoa eta ez aski gardena” dela, eta Jaurlaritzak “xantaia” egiten duela bere diagnostikoarekin bat egiten ez duten taldeak kanpoan utzita. “Pribatutasunaren aitzakiapean” eragileek ezin dituzte gainerako parte-hartzaileen ekarpenak ikusi, eta horrela

ezin da eztabaida “ireki, anitz eta gardena” eman, ordezkariaren ustez.

Gurutzetako Ospitalean ESK-ko delegatua den Imanol Rodríguez Adamek bat egiten du Martínezek kritikekin, uste baitu prozesu “iluna eta amarrutsua” izaten ari dela eta zehaztutako metodologiarekin Jaurlaritzak “bide demokratikoa alboratu” eta “lobby sistemara” jauzi egiten duela. Bai Rodríguezek eta bai Martínezek Osasun Sailak mahaia koordinatzeko izendatutako Meanaren papera kritikatu dute. “Prozesuaren epailea da eta berak erabakitzen du alde bakarrez zein ekarpen txertatu eta zein ez”, dio Martínezek.

Rodríguezek, aldiz, susmoa du Meanak atzean talde bat duela, eta salatu du horren konposizioa ez dela ezaguna. Horrez gain, kexu da inork ez dakielako gainerako agenteek eta, bereziki, Confebaskek mahaian zer ordezkariak duten, eta, hala ere, “gure osasungintzaren etorkizuna” zehaztuko dutela.

Ez hori bakarrik, osasun mahaiarekin egiten ari direna, “aurretik hezkuntza-koarekin egin zutenaren eta laster etxebizitzakoarekin egingo dutenaren bide

beretik”, mahai demokratikoak “apurteza” eta “lobby sistema ezartzea” dela uste du Rodríguezek: “Horrela, erabaki politikoak ez dituzte politikariek hartzen, baizik eta interesak dituzten agenteek. Beti egon dira enpresa indartsuak politikariren atzean bidea zehazten, baina orain mahaian daude eserita eta haien proposamenak aurrera aterako dira, eta hori ezin da onartu”.

Osasun mahaian hezkuntzakoan gertatu zen gauza berdina errepikatzearen beldur dira ESKn: “Paktu bat muntatu zuten, agente guztiak ilusioz eman zioten babesa, eta azkenean atera zuten legea hezkuntza publikoaren aurka doa”. Behin ituna sinatuta, horri buelta ematea “ezinezkoa” dela uste du delegatuak: “Legea eginda dago, parte hartu duten agenteek babestu dute eta erantzukizuna ere badute”. Hala, eta ikusita itunarekin adostuko dena ez dela “herritarren interesen aldekoa” izango, babesik ez ematea erabaki zuten sindikatuan.

EH Bilduko ordezkari Rebeka Ubeira Aranzetak zehaztu du koalizioaren ustetan horrelako lan espazio batean konfiantza sortzeko beste era bateko metodologia erabili beharko litzatekeela. Prozesuarekin kritiko diren arren, herritarren ordezkari diren heinean mahaian parte hartzea garrantzitsutzat jotzen dute, eta uste dute bestela eztabaida batzuk ez liratekeela emango, publiko-pribatuaren afera, esaterako.

DIAGNOSTIKOAREKIN KRITIKO

Metodologia gorabehera, “benetako arazoa” mahaia adostutako diagnostikoa dela uste dute Rodríguezek eta Martínezek, eta zenbait eztabaidari ihes egin nahi zaiela iritzi dio Uberak. ESK-k eta OPAHk uste dute prozesuak ez diola ezer onik ekarriko osasun publikoari, baina EH Bilduk esperantza du estrategien fasean nahi dituzten arlo batzuk jorratzeko aukera izango dutela. “Diagnostikoa orain arte gobernuak onartzen ez zituen elementuak sartu ziren, Jaurilaritzak inoiz aitortu eta jaso ez dituenak, esaterako, pertsonal politikan aldaketa erradikal bat emateko beharra edo pribatizazioa areagotu egin dela”, zehaztu du Uberak.

EH Bilduko ordezkaria jakitun da osasun sistemak duen egoera iraultzeko neurriak adostea “zaila” izango dela eta hainbeste eragile biltzen duen mahaia izanik “minimoen akordioa” bilatu beharko dela, baina adierazi du koalizioa estrategietan zehaztasunak

Bidea korrika eta presaka egin nahi den sententzia du Rebeka Uberak, baina orain arte “titular asko eta egiturazko neurri gutxi” ikusi ditu Jaurilaritzaren aldetik

bilatzera joango dela “herritarren osasun eskubidea behar bezala bermatzeko benetako transformazio bat emateko”.

ESK eta OPAH kritikoagoak dira mahaian lantzen ari diren edukiekin. Haien iritziak, lehen fasean adostutako diagnostikoa ez zaie Osakidetzaren arazo nagusiei heltzen eta ez da erakundea sortu zenetik kudeatu duen alderdiaren (EAJren) autokritikarik antzematen. Martínezek uste du diagnostikoa ez duela balio egun Osakidetzak dituen arazoak konpontzeko, ez baitu osasun sistemaren azterketa integralik egiten eta orain arte Osasun Sail berriak ez duelako aurreko taldearen murrizketak-politikarekin apurtu eta “pribatizazioaren bidean” jarraitu duelako.

Aipatzen du EAJk ez duela osasun sistema ulertzen beharrezko baliabide guztiak dituen egitura publiko moduan, sistema publikoaren eta pribatuaren arteko kolaborazio gisa baizik, eta diagnostikoa ez dela eredu horren inguruko aipamenik egiten ez eta ondorioen inguruko analisirik zehazten ere.

Bestalde, Rodríguezek ohartarazi du diagnostikoa ez duela zalantzan jarzeten Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) eredu eta horren ondorio den “ospitalzentrismoa”. Hiru eragileetako ordezkariak bat datoz: egun, Osakidetza gaixotasunak kudeatzera bideratuta dago eta indarrak prebentzioan eta osasunaren promozioan jarri beharko lituzke. Horretarako, Lehen Arreta indartu behar dela gogoratu dute, “osasun sistemaren ekitatea bermatzen duelako, emaitza hobekuntza eskaintzen dituelako eta gastu sanitarioa murrizten duelako”, Martínezek hitzetan.

Pribatizazioarena da diagnostikoa beste hutsune nabarmenetako bat. ESK-ko delegatuaren iritziak, gaiari ez zaio modu argian heldu: “Anbulantzien sistemaren inguruan esaten duten bakarra da etorkizunean aztertu beharko dela nola kudeatu, baina horrek ez du argitzen gehiago pribatizatzearen alde egingo duten ala ez”. Martínezek ere uste du mahaia “azal-azalek” landu duela pribatizazioaren arazoa, zeinak berekin dakarren osasuna negozio bilakatzera herritarren eta langileen eskubideen eta zerbitzuaren kalitatearen kaltetan.

Gainera, sindikatuak eta plataformak salatu dute diagnostikoa ez dituela pertsonal faltaren arazoak aipatzen –lan baldintza prekarioak eta behin-behinekotasun handia kasu–, eta arazoaren erroa Osasun Sailetik kanpo kokatzen duela, erantzukizun guztiak kanpoan jarrita. Areago, Lehen Arretako medikuen falta baino ez da aipatzen diagnostikoa eta, Rodríguezek hitzetan “kategoria profesional guztietan” dago hutsunea: “Osakidetzan beti gaude minimoetan edo minimoen azpitik”.

Eztabaidatik kanpo geratu dira baita ere euskalduntzea eta genero ikuspegia. ESKren arabera, analisisian ez da ezer aipatu zerbitzua euskalduntzearen inguruan, nahiz eta erabilzaileen eskubideak bermatzeko orduan funtsezkoa izan. Genero ikuspegitik ere hutsuneak daudela salatu du OPAHk: “Lehen Arretan genero ikuspegia lantzea beharrezkoa da, baina horretarako baliabideak behar dira, eta gaur egun ez ditugu”.

Jose Ignacio Martínezek argi du osasun publikoaren narriadura eragin duen funtsezko arazoietako bat “azpi-finantzaketa iraunkorra” dela, eta egun Osakidetzak duen aurrekontuarekin ezinezkoa dela “behar ditugun egiturazko aldaketei ekitea”. Salatu du iaztik aurrekontua % 0,35 baino ez dela igo eta Europar Batasuneko batez bestekoa-ekin alderatuta EAeko osasun gastua oso txikia dela, BPG kontuan hartuta. Hala, OPAHren bozeramaileak uste du diagnostikoa ez dituela “egiturazko arazoak identifikatzen” eta ez duela aurrekonturik horiei aurre egiteko.

NOLA HELDUKO DA MAHAIA HELMUGARA?

ESK-k lehen fasean utzi zuen mahaia argi zuelako bertatik aterako dena ez dela “osasun publikoarentzako ona izango”. Imanol Rodríguezek arabera, bertan ja-



GOTZON ARANBURU / FOKU

Pribatizazioarena da diagnostikoaren hutsune nabarmenetako bat. ESK-ko delegatuaren iritziz, gaiari ez zaio modu argian heldu.

rraitzen dutenek badute erantzukizunik, “Osasun Sailaren irudi-zuritzea” babes-ten ari direlako. OPAHren arabera, Jaur-laritzaren ardura estaltzeko ke-laino bat besterik ez da mahaia, murrizketak eta pribatizazio neurriak ezarri bitartean “bake soziala” irudikatzen.

Rebeka Uberak aipatu du EH Bilduk Legebiltzarrean egiten duen oposizio lana neutralizatzeko ahalegin zantzua hartu ziotela hasieratik eztabaida prozesuari. Bidea korrika eta presaka egin nahi den sentazioa ere badu ordezkariak, baina orain arte “titular asko eta egiturazko neurri gutxi” ikusi ditu Jaur-laritzaren aldetik. Prozesua ondo burutzeko behar den denbora hartzearen alde agertu da, eta bitartean Gobernuari bere ardurei heltzeko dei egin dio.

ESK gogorrago agertu da, eta balizko itunaren ondorioei nola aurre egin

irudikatzen hasia da. “Pentsatzen hasi behar gara paktu honetatik aterako denari guztiok batera aurre egin beharko diogula eta kaleak bete beharko ditugula”, azaldu du delegatuak.

Osasun Publikoaren Aldeko Herri-tar Plataformako kideak ere “eszeptikoak” dira balizko itunarekin eta ez dute ikusten Eusko Jaur-laritzak benetako borondaterik duenik aurreko gobernuaren politika neoliberalak baztertu eta sakoneko aldaketak ezartzeko. Iragan otsailaren 1ean EAEko hiru hiriburuetan manifestazio jendetsuak egin zituzten osasun sistema publikoaren defentsan, eta egoera onbideratzen ez den bitartean kaleko lana egiten jarraituko dutela berretsi dute. Aldaketaren gakoa herritarren presioa dela uste du Jose Ignacio Martínezek.

Lehenengo bileran, Pradales lehen-dakariak “sistema eraldatzeko” beharra nabarmendu bazuen ere, oraindik ikusteke dago Osasun Itunaren Mahaia zer-nolako aldaketak ekarriko dituen, ikusirik nola helduko den azken fasera, estrategiak zehazteko fasera. Erakunde guztiak printzipioen txostenarekin bat datozen jakin aurretik hasi dira estrategiak lantzen, eta azken etapa horretan argituko da osasun sistema onbideratzeko proposamenetan zer adostasun eta zehaztasun maila lortzeko gai diren prozesuan aurrera jarraitzen dutenak. Agindutako eraldaketa sakonak ekarriko dituen ala, kontrara, itxaropena piztu eta ezer gutxi aldatuko duen ekimena izango den, gobernu zuritzeko diseinatua, prozesuak berak baino soka luzeagoa izango duen eztabaida da. ●

“ ”

Bukele diktadorea da, baina milaka pertsonaren bizimodua askoz hobea da egun duela hiru urte baino

Roberto Valencia

Kazetaria El Salvadorren

Euskal Herrian jaiotako kazetari salvadortar gisa aurkezten du bere burua Roberto Valenciak (Gasteiz, 1976). Salvadortarra da, bizitza erdia daramalako han eta hango ajeak eta hizkera hartuta dituelako: gaztelerazko elkarrizketan El Salvadorko hitzak sartzen ditu barra-barra. Izan ere, euskara ikasi zuen, eta euskaraz lan egin zuen *Eginen*, baina ia 23 urte daramatza hitz egin gabe: “Horrexegatik, sentitzen dut euskaraz ez aritzea”, dio euskaraz.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE  DOSPORDOS / ARGIA CC BY-SA

Eta kazetaria da, El Salvadorko errealitatea kronika kolpez konstatu duelako: hedabide nazional zein nazioarteko askotan, *freelance* gisan azken sei urteetan. Baina hori baino askoz gehiago egin du. Izan zitekeen Euskal Herrian jaiotako aholkulari edota irakasle salvadortarra, baina berak argi du ezeren gainetik kazetari dela, eta harro dio: “Kazetari-tzaren rola gizarte demokratiko batean ezinbestekoa da”.

2001ean joan zinen Euskal Herritik El Salvadorrera. Nolako zen utzi zenuen Euskal Herria?

Nik utzi nuen Euskal Herria beste herrialde bat zen, fisikotik hasita. Ni Zaramagakoa naiz, eta hemendik joan nintzenez ez zegoen Boulevard merkataritza gunea ere ez: hortik saihesbidea pasatzen zen. Hortik hasita dago ezberdin; hiria ezberdina da.

Eta gizarte aldetik, argi ikusten da aldaketa: migrazio handia dago, jendea oso zaharra da eta ikusten da azken hori arazo bat dela hemen. Edo behintzat kontu horiek oso argi ikusten dira herrialde oso gazte batetik zatozenez; suposatzen dut hemen bizi den jendeak ez duela horrela ikusiko. Nostalgiaz begiratzen diot honi, ez pentsa. Baita euskarari ere.

Eta zein El Salvador aurkitu zenuen?

Orduko hura ere beste herrialde bat zen, eta agian aldaketak nabarmenagoak izan dira. Nire kasuan, kontu profesionalengatik, maren [pandillak] fenomenoan espezializatu naiz. Garai hartan, hamar bat urte zeramatzaten lehen *clikek* [maren antolakuntza unitaterik oinarritzakoa], baina arazoaren tamainak ez zuen zerikusirik handik hogeitaz urtera izan duenarekin. Mundu osoan dauden fenomeno kriminaletan

ez bezala, El Salvadorren lortu duten garapen maila kontu bakana da: pandillak biztanleriaren %60-70aren egunerokotasunaren parte izan dira. Fenomeno horren ezaugarrietako bat da, hain zuzen ere, hedapena. Gaur egun, herrialdea oso aldatuta dago: 2015ean hemezortzi hilketatik egoten ziren egunean, orain, hilabete bost bat.

Eta aldaketa horren aurpegia, Nayib Bukele.

Bai. El Salvadorrek oso ezaguna den presidente bat dauka, hedabideen arreta handia jasotzen duena, herrialde oso txikia izanda. Presidente horrek sei urte daramatza gobernuan eta bere histerionismoagatik El Salvador mapan eta nazioarteko agendan jarri du. Hori eragin dute erabaki negatibo askok, baina positiboren batek ere bai, tartean, pandillek komunitatean duten eragina ia desagerrarazteak. Muturreko aldaketa bat



da, batez ere gizarte sektore pobreei eragiten diena, hain justu pandillek eragin handien zuten sektoreari. Eta nabaritzen da. Bukele, nire ustez, autokrata eta diktadorea da, horrela esan nahi bada, konstituzioaren aurka baita berriz presidente. Baina milaka pertsonaren bizimodua askoz hobea da egun, duela hiru urterekin alderatuta, eta hori ez onartzea norbere buruari gezurra esatea da.

Horiek dira datuak. Baina zein da errealitatea kaleetan?

Gaur egungo El Salvadorren, egoera ezberdin batean egonda ere, ogia erostera

zoazenean ogia hesi artetik ematen dizute, guardia armatuak daude, segurtasunezko langileak... Hori ez da aldatu. Aldatu dena hilketen tasa da, eta ez dut esan nahi hori gutxi denik, noski; baina hortik Amerikako herrialde seguruena dela esatera, eta hori esan du Bukelek, tarte handia dago.

Kazetarioi bi errealitate horien artean igeri egitea tokatzen zaigu: alde batetik, egia da pandillen fenomeno gehien jasan duen jendearen bizi baldintzak hobetu direla, baina, bestalde, diskurtso hori gehiegizkoa da, ez du zerikusirik egunero ikusten dugun errealitatearekin.

Hiru urte beteko ditu laster salbuespen egoerak, eta denbora horretan kazetarien aurkako jazarpena nabarmena izan da. Zelan dago egoera?

Oso gaizki dago prentsa askatasuna El Salvadorren. *Bukelismoak* eragin duen biktima nagusietako bat izan da kazetaritza. Lanerako ezinbestekoak ziren tresnak deuseztatu ditu, informaziora sarbidea legezkatzen zuen legea, esaterako; espioitza kanpainak jarri ditu martxan, *El Faro* agerkari digitaleko kazetari batzuk espiau ditu, eta, ondorioz, euren egoitza administratiboa Costa Ricara eraman behar izan dute;

kazetarien prestigioaren aurkako eta difamazio kanpainak asmatu ditu. *El Faroren* kasua, esaterako, ez da aurretik inoiz gertatu herrialdean: juridikoki ere esku hartu du kazetarien aurka.

Niri ere gertatu izan zait Guatemalara alde egin behar izatea. Izan ere, salbuespen egoera hasi eta astebetere lege bat onartu zuten, pandilleroak elkarrizketatzeagatik kazetariak hamar edo hamabost urtez kartzelara zigortzen zituen. Nik pandillero eta bertako buruzagitza asko elkarrizketatu ditut, eta garai hartan, hain zuzen, elkarrizketa bat egin berri nuen, BBCn argitaratu zutena. Horregatik, Guatemalara alde egin behar izan nuen hilabetez, elkarrizketa hori editatu eta argitaratu, eta atxilotuko ez ninduten ziurtasuna izan arte.

Argi dago Bukeleren lehen helburuetako bat zela *El Faroren* eta beste hedabide batzuen sinesgarritasuna deuseztatzea: antzeman baitzuen alderdi politikoeak eta gizarte eragileek baino indar handiagoa zutela bere gobernu zalantzan jartzeko. Pena handia ematen dit, baina onartu behar zaio bere helburua lortu zuela: *El Farok* orain dituen irakurraldiak oso gutxi dira, inkestetan azkenengotarikoa dago sinesgarritasunean. Orduan, bai, suposatzen dut kazetari izatea askoz zailagoa dela El Salvadorren hemen baino.

Gizarte mugimenduak dira, besteren artean, salbuespen egoeraren beste biktima nagusiak.

Bai, kasu bat famatu egin da azkenaldi honetan. Ekintzaile ekologisten kolektibo baten aurkako kasu bat sortu zuen fiskaltzak, *bukelista*, noski, Gerra Zibileko hilketa batekin lotuta. Ezagun egin da, orain dela 30 urteko akusazio bat delako: epaile batek aske utzi zituen, baina prozesua errepikatu egingo da. Kontua da talde horrek eragiten duen eremuan meatzaritza esplotazioa berriz jarri nahi dutela martxan, eta hain justu gai hori orain bogan dagoela.

Jakin badakit salbuespen egoeran izan diren 80.000 atxilotuetatik 20.000-30.000, nori galdetzen diozun, errugabeak zirela, ez zeukatela zerikusirik pandillekin, are, pandillen biktimak ziren asko. Lortu duena da prozesu judizialetan zeuden berme apurrak deuseztatzea: epaiketarik barik bi urte egon daitezke. Hori da gaur egungo El Salvador: estatua desagerrarazi dute.

Esatera ausartzen naiz, ordea, lehen ere El Salvadorren zegoena ez zela estatutu demokratiko bat, ez zen Suitza edo

Norvegia. Lehengo estatuak bere funtzioak bete zitzakeen klase sozial pribilegiatuentzat, baina komunitateetan, pandillen agintea osoa zen lekuetan, lehen ere ez zeukaten zuzenbidezko estaturik edo demokraziarik. Beraz, ez du zentzurik orain esateak Bukelek desagerrarazi dituela.

Hala ere, gizartearen babes zabala du. Zelan azaltzen da hori?

Ez dakit nola azaldu, baina salbuespen egoeran bizitzea ez da horren larria jende askorentzat. Badakit paradoxikoa dela, baina indarkeria gehien pairatzen ziren eremuetan gehien eskertzen dute salbuespen egoera. Jende horrek uste du salbuespen egoera dela pandillarik ez egotea. Eta onartu behar da lorpen handia dela pandillak horrela desagerraraztea, eta horrek azaltzen duela, besteren artean, jendearen babes hain zabala.

Gobernuaren errepresioarena, gainera, ez da kontu berria: "*Mano dura*" [esku gogorra], errepresio programak, askotan egon dira. 2015 eta 2017 artean, esaterako, FMLN alderdi ezker-tiarra gobernuan zegoela, gobernuak uste zuen pandillen fenomeno bukarazi zezakeela pandilleroak hilda. Eta, horregatik, tankeak zeuden plazetan. Orain ez da horrela, egungo salbuespen egoeraren ideia ez da militarrek kalean izatea, ez da estatu militarizatu bat mugikortasuna murriztuta duena.

Aipatzen duzun garaitu horretan argitaratu zenuen pandillari zuzenean lotutako liburu bat. Bertan El Directoren historia kontatzen zenuen. (*Carta desde Zacatraz, Libros del K.O.*, 2018)

Carta desde Zacatraz kronika bat da, ia 400 orrialdekoa. El Directori egin nion elkarrizketa nire El Salvadorreko lehenen-



gotarikoa izan zen, eta jakin-minarekin geratu nintzen: herrialdeko lehenengo pandillero mediatikoa izan zen. Gaur egun ezingo nukeen egin, egun ezinezkoa den zenbait lekutan sartu ahal izan bainintzen. Bera zegoen kartzela, Zacatraz, Zacatecoluca-koa, herrialdeko segurtasun handiko kartzela bakarra zen garai hartan, eta bertan elkarrizketatzeko aukera izan nuen; baita bere familia eta berarekin harremana izan zuen jende asko ere.

El Directo herrialdetik klandestinoki atera zuten, bi indar politikoren arteko borrokarako arrazoi bihurtzeak egin zuen famatu. Alde batetik, indar progresistek erakutsi nahi zuten bere historial kriminala zuen pertsona bat ere gizarteratu zitekeela; eta beste indarrek nahi zuten aurkakoa erakutsi.

Presoen gizarteratzearen eztabaida argi irabazi du punitibismoak, ezta? Bukeleren megakartzela adibide.

Bai. Gaur egun El Salvadorren esan daiteke pertsona bat bizi osorako kartzelatu dutela. Eta agian pertsona horren aurka daukaten akusazio bakarra da dei anonimo bat, pandilleroa dela salatu duena. Gobernuak inongo lotsarik barik dio CECOTen [Terrorismoaren konfinamendu zentroa], megakartzela horretan, dagoen presorik ez dela inoiz kalera aterako. Baina, esan bezala, lehen eztabaida hori oso bizirik zegoen.

Kartzela hori *bukelismoaren* altxor moduan saldu dute. Orain edozein youtuber edo politikari eramaten dute bertara.

Bukelismoaz hitz egiten duzu.

Kazetaritza aldetik, El Salvador oso herrialde interesgarria da; *bukelismoaren* fenomenoaz aztertzea asko interesatzen zait. Izan ere, Bukelek esaten duena esaten duela, beti aurkituko dituzu bere bideoak edo adierazpenak justu kontra esaten.

Orain dela hamar urte FMLN alderdian zegoenean bazirudien bera zela itxaropena presidente ezkertiar bat izateko, eta hori komeni zitzaionez, milaka erreferentzia daude bera kontu horietaz ikuspegi progresistaz berba egiten; baita presidente bat bi aldiz aukeratzearen aurka ere. Horregatik diot ulertu behar dela gizartea, Nayib Bukeleren proiektu politikoa ulertu ahal izateko. Eta nahiz eta oposizioak ukatu, indarrean sartu eta sei urtera gizartearen %80 edo gehiagoren babesa du. Hori ez da inoiz gertatu: horregatik sentitzen naiz eroso *bukelismoaz* berba egin eran, uste bai-



“ ” **Gobernuak inongo lotsarik barik dio megakartzelan dagoen presorik ez dela inoiz kalera aterako**

tut hemendik urte batzuetara fenomeno hori ikertu egingo dela.

Fenomeno oso inbasorea da, eta denetarako ematen du. Batetik, El Salvadorko zuzenbidezko estatu ahula guztiz desegin du eta pertsona baten burutazioen arabera hartzen dira erabakiak; baina, bestetik, pertsona horrek, hiru botereen kontzentrazioa oinarri hartuta, lortu du sinesgaitza zena guztiontzat: pandillak ia ezdeusak izatea, komunitateak banatzen zituzten muga ikusezinak desagerraraztea.

Agian aztertuko duzu fenomenoaz, baina egun beste lan bat daukazu esku artean. Zertan ari zara?

Liburu baten idazketan murgilduta nago. Pandillen munduarekin dago lotuta, baina uste dut kutsu positibo batean joango dela. Liburu berri honek lantzen

du El Salvadorrek duen zor historiko bat: ehun soziala berrezartzeko saiakera. Gerra Zibiletik, aurretik ez esateagatik, dauka lan hori egiteko herrialdeak. Gerra amaitu zen, Nazio Batuen Erakundearen eredu bake prozesu bat izan zen eta dirua heldu zen herrialdera, baina kontu asko landu barik geratu ziren: buru osasuna, esaterako. Orain badago horri heltzeko asmo bat. Badago fundazio bat, *Forever* izenekoa, programa bat martxan jartzen ari dena mota horretako indarkeria bortitza jasan duten gizarteak sendatzeko.

Biktimekin berba egiten aritu naiz, elkarrizketatzen. Jendeari kendu zaion pisua sekulakoa da, lehen asko ez ziren etxetik ateratzen. Orain jendeak berba egin dezake, pandilleroak salatu ditzake; lehen premisa zen “ikus, entzun eta isildu”, eta horrek eragiten zuen pandillak ez desagertzea. Gobernuaren politika hauek, esan bezala, ez dira berriak; baina oraingoan, ezberdintasuna da jendeari ehuneko zabal batek presidentearengan sinisten duela. Hiru urte daramatza salbuespen egoerak, eta badirudi badaudela zantzuak esperantzarako. Nik uste dut egoera horrek ia guztiz desagerrarazi dituela pandillak, behintzat, ezagutzen genituen moduan: edo, behintzat, asko zaildu du berriz agertzea. Baina izan daiteke bestelako fenomenoren bat agertzea, eskualdean klasikoagoa dena, nar-kotrafikoarekin lotuagoa. Ze, oraindik ere, oso herrialde bortitza gara. ●

“Mina albo batera utzi nahi dugu, kapitalismoarentzat ez delako errentagarria”

Istorioetan murgildu eta munduak eraikitzea gustuko du Iosune de Goñi García argazkilaria, idazle eta itzultzaileak (Burlata, Nafarroa, 1993). Zaurietatik, gorputzetik eta minetik sortzen du askotan. Desgaitua eta gaixo kronikoa da, eta artea erabiltzen du indarkeria kapazitista mahaigaineratzeko eta mina kolektibizatzeke. *Ahizpa beltza* bere azken poesia liburua aurkeztu du Iruñeko Katakraken.

 OLAIA L. GARAIALDE



Iosune de Goñi

Argazkilaritzaren eta idazketaren bidez paisaia ugari sortzen ditu Iosune de Goñik. Ibaitek, basotik eta itsasotik ibiltzea oso gustuko du, eta horiek guztiak islatzen ditu sortzen dituen lanetan. “Sentitzen dut hodeietan bizi naizela; ameslaria naiz. Txikitatik esan didate arreta beste leku batean dudala eta beste mundu batean nagoela”. Koloreekin eta argiarekin esperimentatzen, fantasiako munduak sortzen ditu: “Argi ihesak izateko manipulaturik dauden karreteak erabiltzen ditut, eta infusioetan, loreekin egindako nahasketetan, hilekoaren odolean eta beste likido batzuetan sartzen ditut”.

Horrek errealitatetik ihes egiten lagundu baino, naturarekin gehiago konektatzen laguntzen dio: “Niretzat errealagoa da baso more bat islatzea esposizio bikoitzarekin, baso hori modu errealistan ikustea baino”. Gaineratu du narratiba “hegemonikotik” aldentzeko bidea ere badela: “Askotan galdetzen diot neure buruari nola ikusten duten mundua sor-

“Niretzat errealagoa da baso more bat islatzea esposizio bikoitzarekin, baso hori modu errealistan ikustea baino”

gin-orratzek edo burruntzien. Nolabait gizakiaren begirada zalantzan jarri, eta beste begiradak ere badaudela aldarrikatu nahi dut”. Kolektibizatzeke bidea ere bada: “Ez gara entitate solteak. Mundua hizkuntzaren bidez zatitzen dugu, baina erakutsi nahi dut gorputzak ez daudela horren berezita”.

Sortzerako orduan, pertsonaletik abiatzen da oso maiz: “Egunero hamaiika sintomarekin bizi naiz, eta sortzen dudana guztian gorputza dago, sentsazio onak zein txarrak”. Halere, uste du idazketa berri oro berridazketa dela: “Baldintzatuta gaude irakurtzen dugunarengatik, ingurukoengatik, eta nire

kasuan, gizakitik haraindi dauden gauzengatik”. Hortaz, bizipen pertsonaletatik abiatu arren, besteenak ere ditu kontuan: “Gizarte honetan ez diegu espazioa ematen minari, sufrimenduari, gorputz desberdinei eta izateko eta pentsatzeko moduei. Desberdintasunak beldurtzen gaitu, eta mina alde batera utzi nahi dugu, kapitalismoarentzat ez delako errentagarria”.

Esan ezin diren eta kosta egiten diren gauzez mintzatzeko artea lagungarria dela dio: “Minari buruz hitz egiten dudanean, metafora pila bat erabiltzen ditut; adibidez, zulo beltz bat dudala sa-belean edo animalia batek jaten dizkidalabarrenak”. Halere, bere idazkera “oso lirikoa” eta “oso gordina” da: “Nahiko gardena naiz eta naturaltasunez lantzen ditut gaiak”. Hala nola indarkeria kapazitista, genero indarkeria, gaixotasunak eta suizidioa landu ditu obretan.

OREKAK ETA DESOREKAK

De Goñirentzat sormen prozesuak “oso aberasgarriak” eta “ederrak” dira. Baina,

aldi berean, "zailak": "Ematen du gaixorik zaudenez sortzeko nahi beste denbora duzula, baina ez da horrela. Egun askotan ez daukazu indarririk". Artetik bizitzea ere zaila denez, beste lan batzuk lehenetsi behar izaten ditu: "Indarra daukazunean produktiboa izaten saiatzen zara, baina arteak ez du dirurik ematen. Orduan, beste bide batzuk probatzen dituzu eta artea itxoiten geratzen da". Horrek gorputza zamatzera eta ahal duena baino gehiago egitera eraman dezakeela uste du: "Gorputza gehiago egitera behartzen dut, eta ez luke horrela izan beharko. Hori ere arazo sistemiko bat da".

Taldeka lan egitea ere zaila izan daitekeela sentitzen du, guztien lan erritmoen arteko oreka bilatzea kosta egiten delako: "Askotan neure burua gehiago estutzen edo azalpenak ematen aritu behar dut gaituen erritmoa jarraitzeko. Bai-


na denek ez dute ulertzen. Horregatik batzuetan gaizki ateratzen da eta beste batzuetan ongi".

Azkenik, nabarmendu du erreferenteak falta direla, beti hitz egiten dutelako medikuek, psikiatrek, psikologoek eta halakoek, eta albo batera geratzen direlako pertsona desgaituak, gaixoak eta beste asko. Berak erreferente asko dituen arren, kosta egin zaio horriengana iristea: "Gaixo kronikoa, desgaitua eta neurodibergentea naiz. Gauza asko ni jaio aurretik zeuden eta beti egon dira. Horregatik, jasan dut indarkeria kapazitista eta indarkeria medikoa, baina hasieran ez nekien existitzen zirenik". Medikuek kasurik egiten ez ziotenez, bere kabuz ikertzen hasi zen. Orduetik, asko interesatzen zaio emakume eta pertsona genero disidenteek gaixotasunei buruz, neuridibergentziaz eta eromenaz idatzitako literatura. ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Ehun konektiboa. Oso ohituta gaude gorputza ulertzera zatituta dauden atalak izango balira bezala. Ehun konektiboak osotasuna gogora ekartzen dit. Dena konektatzen duena da; gorputzaren itsasgarria".



“Udala legeez kanpo ari da errolda ukatzen gasteiztar behartsuenei”

'Erroldarik gabe izaterik ez' ekimenak Gasteizko Udalaren bi barne dokumentu eman zituen argitara urtarrilaren 30ean. Udalerrian erroldatzeko irizpide murriztaileak jasotzen dira bertan, “bidegabeak eta ilegalak”, eragilearen esanetan, herritar baztertuenen kaltetan. Osasun txartela, gizarte prestazioak,

eskolatzea... oinarritzko hainbat eskubide eskuratzeko ezinbesteko den dokumentua etxebateen borondatearen eta diruaren menpe uzten du udalak horrela, neurri handi batean. Ilargi Bengoetxea Gartziarekin hitz egin du ARGIAk Auzoan Bizi etxebizitza sareko eta Erroldarik gabe izaterik ez ekimeneko kidea.

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Urtarrilaren amaieran argitara emandako bi barne dokumentuetako bat Udalaren Aholkularitza Juridikoaren 2019ko ekainaren 21eko txostena da. Txostenak dio ez dela herritarrik erroldatuko udalaren jabego diren eraikinetan horretarako baimen espliziturik ezean, nahiz eta herritarra egiazki bertan bizi. Arabako Probintzia Auzitegiaren sententzia penal baten interpretazioa egiten du aholkularitzak horretarako. Epai hartan epaileak familia bat errugabe jo zuen okupazio akusazio baten aurrean. “Iro-nikoki, epaile aurrerakoi baten ebazpena baliatu du udalak, interpretazio murriztailea egin eta errolda eskubidearen aurka egiteko”, dio Bengoetxeak. “Sententziak ez du horrelakorik esaten, inolaz ere ez”, salatu zuen Erroldarik gabe izaterik ez ekimenak. Are gehiago, aholkularitzaren posizioa legearen aurkakoa dela ziurtatu zuen.

Udal errolda. Lan prozedura Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan du izena ezagutzera eman zuten udalaren bi-

Bi barne dokumentuek frogatzen dute udalak legeez kanpoko araudia ezarri duela herritarrek erroldatzeko, salatu dutenez

garren barne dokumentuak, 2024koa. Erroldatzea Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan egiten da Gasteizen, eta bertako langileentzako jarraibideak ematen ditu 129 orritako txostenak. Besteren artean, zehazten du jabea ez den herritar bat ezin dela etxe batean erroldatu etxebatearen baimen espliziturik gabe, edo indarrean urtebete baino gutxiago

daraman alokairu kontraturik ezean; etxe bakoitzeko gehienez ere zazpi erroldako muga ezartzen du -etxe askotan gelakako alokairua dela eta bizi diren pertsonak gehiago badira ere-; edo infraetxeetan erroldatzea debekatzen du. Irizpide horiek ere legeez kanpokoak direla zaldu du Bengoetxeak.

LEGEZKOA ETA BIDEZKOA

Zer dio legeak? 7/1985 Legeak arautzen du errolda Espainiako Estatuan. “Administrazioak herritarrek ‘bizi diren tokian’ erroldatzeko ‘beharra’ duela dio legeak”, azaldu du Bengoetxeak. EAEko Auzitegi Gorenaren epai batek berretsi du, 2024an, erroldak “benetako bizilekua islatu” behar duela. INE Espainiako Estatistika Institutuaren jarraibide “lotesleak” ere aipatu ditu: “INEk zehazten du berdin duela zein baldintzetan dagoen bizitokia edo bertan bizi direnak baimena duten edo ez bertan egoteko”.

Legezketasunetik harago, errolda horrela ukatzea bidegabea dela azpi-



ERROLDARIK GABE IZATERIK EZ

Erroldarik gabe ekimenik ez prentsa agerraldia egin zuen Gasteizko Udaletxearen aurrean, erroldarekin duen "legez kapoko araudia" salatzeko.

marratu du Bengoetxeak, eta oinarrizko eskubideak urratzen dituela, hain zuzen ere errolda "sarbidea delako oinarrizko eskubideentzat". Errolda ezinbestekoa da haurrak eskolatzeko, osasun txartela eskuratzeko edo Lanbiden eta Etxebiden izena emateko. Eta antzinatasuna markatzen du ere: hiru hilabetez egon behar duzu erroldatuta osasun txartela eskuratzeko, sei hilabetez Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzeko eskubidea izateko, hiru urtez Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren kasuan...

MERKANTILIZATU ETA POLITIZATU

Errolda "politizatzea eta merkantilizatzea" leporatu dio Erroldarik gabe izaterik ez ekimenak Gasteizko Udalarari. Merkantilizatu, besteak beste, etxejabeei ematen dien botereagatik. Jabe askok uko egiten diete maizterrei kontratua egiteari, beste askok egiatan bertan bizi ez diren herritarrek erroldatzen dituzte diru truk -oro har 100 eta 300 euro artean hilabetero, Jon Hidalgo kazetariak *Arabako Alean* azaldu duenez-.

Politizatu, udalak irizpide teknikoez mozorrotzen dituen horiek egiazki politikoak direlako. Horren froga da, azaldu du Bengoetxeak, beste herri eta hirietan ez dituztela baldintza berdinak eskatzen, eta Gasteizko Udala bera 2019an hasi zela muga berriak ezartzen ekimen propioz.

GASTEIZ SALBUESPEN

Auzoan Bizi Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen sareko kide da. "Aldaketak hasi zirenean beste toki batzuetako kideei galdetu genien ea arazo berak zituzten, eta ez". Bilbo eta Donostiako udalek, esaterako, kontraturik ezean bizitokiaren froga gisa onartzen dituzta-



Udalaren bi barne dokumentu eman ditu ezagutzera Erroldarik gabe izaterik ez ekimenak: Udalaren Aholkularitza Juridikoaren 2019ko ekainaren 21eko txostena, eta *Udal errolda. Lan prozedura Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan* txostena, 2024koa. Ekimenak salatu du herritarrek erroldatzeko irizpide "bidegabeak eta legez kanpokoak" jasotzen direla bertan.

te uraren edo argindarraren fakturak, edo udal-langileek bisitak egiten dituzte helbide horietara datuak egiaztatzeko -horixe bera egin zuen Gasteizko Udalak Errekaleor auzoan erroldatu ziren bizilagunekin urteak direla-. Gaur egun Gasteizen, aldiz, Auzoan Biziren eskutik hiru familiek berriki salatu duten gisan, bititokian erroldatzea ukatzen diete herritarrei kontraturik ez dutelako... eta ukazioaren jakinarazpena helbide horretara bertara bidaltzen diete.

Aholkularitza Juridikoaren Txostena irakurrita eta alderdi batzuen adierazpenak eta kanpaina mediatikoak ikusita, pentsa liteke PSE-EAJ gobernuak araudia estutzeko duten arrazoi nagusia okupazioari aurre egitea dela. Baina horrek ez du zentzurik: erroldaren araudiak milaka gasteiztarrei eragiten die eta, horien artetik, bizitzeko toki bat okupatu dutenak erabat gutxiengo dira, Bengoetxeak azpimarratu duenez.

ERROLDA ESKUBIDEAREN ALDEKO KANPAINA

2023an sortu zuten Erroldarik gabe izaterik ez ekimena zenbait eragilek elkarlanean: Errekaleor auzoa, Batuta, Errota Anitza, Auzoan Bizi, Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Inor ez Etxerik Gabe.

2024an Autodefentsa Juridikorako Gida argitaratu zuten, bertan dago udal-letxean aurkezteko instantzia eredu bat, "kontratua ez izateagatik udalak errolda ukatzen duenean erabiltzeko". Udalak ezetza berresten duenean bide judizialera jo dezake herritarrek, eta ekimenaren helburua da bide indibidual hori kolektiboki baliatuta pixkana udalaren errolda araudiaren aurkako sententzia batzuk lortzea. Horiek eskuan, azken pausua litzateke fiskaltzara jotzea, eskatzeko berak exijitu diezaiola udalari araudia moldatzea. "Bide oso luzea da, baina uste dugu emaitzak eman ditzakeela, eta bitartean, lortzen dugun aldeko sententzia bakoitza prezioa da udalarentzako".

Bengoetxeak azpimarratu du "fronte guztietan" eragiten saiatzen ari direla: kalean, hedabide eta sare sozialetan, instituzioan eta epaitegietan. Helburu oso zehatza dute: Gasteizko Udala presionatzea erroldatze eskubidea indarrean berrezarri arte. "Udala legez kanpo ari da errolda ukatzen gasteiztar behartsuenei. Politika arrazista, pobreen aurkakoa eta okupazioaren kontrakoa da, amaiera jarri behar diogu", dio Bengoetxeak. ●

ARGIA ETA LARRUN



LUTXI GUNEKO KIDEEK UTZIAK

Ordiziako Lutxi gunean hausnarketarako gaiak begien bistan jartzen dituzte, aldizkariak hormetan zintzilik jarrita. Besteren artean ARGIA piloa aurki daiteke.

Pentsamendu kritikoa eraikitzeko Lutxi gunea

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA


Azaroan eta abenduan ez nuen aukerarik izan Ordiziako Lutxi Irazi gunera gerturatzeko. *Emakumeen aktibismoa gorai-patzen* eta *Euskara ahoan eta ibili munduan* izan dira aurreko hilabeteetako gai gomendatuak eta pena dut ez bainaz gerturatzera iritsi, baina urtarrilean bai, heldu naiz Ordizira, eta gaia ez da makala: *Gerra(rik ez) eta migrazioa*. Aktualitateko gaiei heldu eta herritar-irakurketa *hazia*, *pentsamendu kritikoa uzta* lelo. Beste aldizkari eta liburu askoren artean, ARGIA eta *Larrun* oso presente dira.

KGT kolektiboak duela lauzpabost urte irekitako espazio honek historia luzea du, 40 urte egitera doan Ordiziako Gaztetxearen eta Arlote iratiaren has-tapenetatik pixkanaka osatzen joan diren liburutegia baitu ernamuina. Zer da leku hau? Galdetu diot *Mate* izenez aurkeztu didaten KGT kolektiboko kideari.

“Urtetan zehar osatu dugun bilduma; aldizkari, liburu eta dokumentuz betea, herri mugimendua indartzea helburu duena. Hona datorrena nahiko genuke etortzea dokumentuetan murgiltzera, zerbait bereziki zehatza aurkitu nahirik gabe, altxorrak topatzera”, erantzun dit. “Urtarileko gaia da *Gerra(rik ez) eta migrazioa* eta zintzilik ikusten ditut ARGIA asko”, jarraitu dut elkarrizketarekin. “Azaroan hasi ginen gomendatutako gaiak pasillora ateratzen, interesgarriak iruditzen zaizkigun edukien hautaketa bat eginda, eta ondoan ditugunez KZ gunea eta Jabetze Eskolak, herritar askori informazioa eskurago jartzeko modua da. ARGIAk eta *Larrun*-ek protagonismo handia hartzen dute, guri interesgarri zaizkigun gai asko jorratzen dituztelako”, azaldu dit.

Lutxi gunea astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 5etatik 7etara egoten da irekita eta astearte, ostegun eta larunbatetan goizeko 11etatik 13eta-

Sarean eduki guztiak irekita zuri esker



Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

““

Lagun on batek komentatu dit eta banuen aspaldi harpidetza egiteko gogo. Lan bikaina egiten duzue, kalitate handikoa, euskaraz

Legazpitik Arantxik

““

Norbanakoa errespetatuz, komunitatea sortzen duzuelako Ibarrik Xabierrek


““

Kazetaritza lan fina eta serioa egiten duzuelako Erreteriatik Nathaliek

ra. 30 sailetan banatuta dago gunea eta galdetu diot ea hau guztia zenbaten artean duten antolatua: “Egia esateko, hiru lagun motibatu gara, zortzi laguntzaile ditugu inguruan eta dozenaka kide konbentzitzeko bidean”, esan dit, barrez.

“Goierritarrak gonbidatu nahi ditugu KGT kolektiboaren Lutxi gunera, informazioan murgildu eta iritzi kritikoa eraikiz, zalantzan jartzeko kontatzen digutena”, azpimarratu dit. Gomendatutako gaiaren esposizioan bakarrik, pasa dut ordubetetik gora artikulu batetik bestera saltoka; ARGIAtik *Elhuyar*-era, *Larrun*-dik *Jakin*-era... 40 urteotan egindako bilketara ez naiz iritsi ere egin. Beti utzi behar omen da zerbait, bueltatzeko. ●

Iruzurgile ala matxino?




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Judea, K.o II. mendea. Erromatar probintziako giro nahasi betean, Gandalias eta Saulosen kontrako epaiketa egin zuten, iruzurra eta zerga-saihestea leporatuta. Epaietaren berri grekeraz idatzitako 133 lerroko papiro batean jaso zuten (argazkian). Dokumentu nabatea zela pentsatuta, ahaztuta geratu zen papiroa. Baina 2014an Hannah Cotton ikerlaria esku artean zuen dokumentuaren garrantziaz jabetu zen –horregatik esaten diote *Cotton* papiroa– eta, berriki, *Tyche* aldizkarian hari buruzko ikerlan xehearen berri eman dute.

Gandalias notario baten semea zen, ziurrenik erromatar hiritartasuna zeukana. Indarkeriagatik, estortsioagatik eta dokumentuak faltsutzeagatik salaketa mordo zeukan aurrez, beti ere papiroaren arabera. Saulos Gandaliasen konplizea zen eta, epaileen ustez, bera izan zen dokumentu faltsuak erabiliz zergak saihesteko plana prestatu zuena: faltsutzearen bidez, esklaboak ezkutuan erosi eta, ondoren, askatu omen zituzten, jarduera horiei zegokien zergak ez ordaintzeko.

Erromatar legeak ustelkeria, iruzurra eta faltsutzea gogor zigortzen zituen, zenbait kasutan heriotza zigorra ezartzeraino. Dokumentuak fiskalaren prestaketa lanak eta hainbat testigantza jasotzen ditu, baina ez dakigu azkenean zer zigor ezarri zieten akusatuei. Gainera, papiroan bestelako delituak ere le-



TYCHE

poratzen zaizkie, esaterako, 129. urtean Adriano enperadoreak probintziara bisita egin zuenean errebolta-ekintzak antolatuta izana.

Judeako giroa oso nahasia zen garai hartan; Bar Kokhbacko matxinada lehortzearen zen. Gainera, esklaboak erosi eta aske uztea ez da sekula negozio errentagarria izan; zergak saihestuta, gehienez, galerak murriztea lortuko zuten.

Orduan, erromatar probintzietan administrazioak eta epaitegiek nola funtzionatzen zuten azaltzeaz gain, zer dakarkigu *Cotton* papiroak? Erromatar legeak iruzurraren kontra zeukan jarreraren adibide xehe eta garbia da? Ala, gerora hainbestetan gertatuko zen bezala, zerga-iruzurra aitzakia hutsa izan zen inperioaren aurkako jarduna zigortzeko? ●



KRIEGERKALLE

Antzinako hegaztien gidaliburua

Poloniar ikerlari talde batek Sevillako Italica aztarnategiko Txorien Etxea aztertu du, eta eraikinaren zoruko mosaikoak erromatar garaiko hegazti-bilduma xeheena dela ondorioztatu du. Txorien etxean 33 hegazti daude mosaikoetan xehetasun handiz irudikatuta. Beste aztarnategi batzuetan ere aurkitu dituzte antzeko irudiak, esate-

rako, Ponpeian eta Alexandrian. Hau da, horrelako *aviaria*-k ohikoak ziren. Baina, *Collectanea Philologica* aldizkarian argitaratutako ikerlanaren arabera, Sevillako bilduma balio artistikoaz harago doa, eta Alexandro Mindokoaren edo Plinio Zaharraren ornitologia-tratatuetako deskribapenetatik oso gertu daude. ●

EUSKAL HERRIKO LURRA DESKOLONIZATU: EUSKARA AGROEKOLOGIKOA DA



AMANDA VERRONE

Horrela eman diogu amaiera deskolonizazioari buruzko lantaldeari, joan den azaroan Arraia-Maetzun (Araba) egin ziren "Euskal Herrian ekofeminismoak gorpuzten" topaketan baita. Lurraldearen defentsaren hainbat espresioen babesleku izan zen, ideia emankorren hazitegi kreollo eta elkartzeko irrikaz zeuden landaguneko eta hiriko andreon uzta oparao. Baina zergatik da garrantzitsua euskal landa-ingurunea deskolonizatzea?

Lehenik eta behin, gogoratzeko kolonizazioa ez dela historiaren hasiera. Kapitalaren pilaketa primitiboari hasiera eman zion arpilatze horren aurretik, luraren laborantzari eta izakien arteko harreman antolaketari lotutako askotariko ezagutzak zeuden. Kolonizazioak, kapitalismoaren hedapen mundializazioak, lurperatu ditu jakintza horiek. Hala ere, hor diraute jakintza horietako batzuek: laboreen errotazioa, mandala baratzeak, permakultura eta agroekologia. Horien epistemologiak eta g(i) neologiak, hemen eta planetako hainbat txokotan, luraren azpian taupaka diraute. Deskolonizatu, beraz, naturarekiko harremani buruzko antzinako jakinduriak berreskuratzeko.

Bigarrenik, onartzeko kolonizazioak martxan jarraitzen duela eta lurraldeei hainbat inplikazio dakarzikie. Inbaditutako herrietan eraiki diren estatu-nazioen sorrera-proiektuen zati dira desjabetzea, pertsonen esklabotza eta luraren merkantilizazioa. Sarraski-proiektuak dira, zeinetan landa-eremuak kokapen zentrala izan duen mendekotasun- eta subalternitate-ekonomian, eta hori da duela bost mendetik hona Hego Globaleko herrialdeei inposatzen zaiena. Euskal Herriak, europar eredu predatzaileari atxikia izan denez, posizio geopolitiko bat du, ezinbestean. Bere oligarkiari mesede egin dio posizio horrek, eta egun ere oligarkiak aberas-



2024ko azaroan Maetzun egin zituzten "Euskal Herrian ekofeminismoak gorpuzten" topaketak.

FEMINISTOK LURAREN DEFENTSAN BLOGA

ten jarraitzen du. Deskolonizatu, beraz, pribilegioak aitortzeko eta eskubideak sozializatzeko.

Hirugarrenik, ulertzeko Euskal Herria bere burgesia entregatzailetik harago doala eta lurralde honek ere inperioen okupazio kriminalari aurre egiten jarraitzen duela, euskal landa-eremua izanik eraso-gune nagusia: herri-lurren lapurretak, (agri)kultura baserritarren estigmatizazioa, historiako latifundista handiena den Eliza Katolikoaren dogmen inposizioa, emakume baserritarren aurkako bortxaketak eta jazarpena, sorburua baso hauetan duen jatorrizko hizkuntzaren debekua... Deskolonizatu, beraz, hemen ere lurra defendatzeagatik erre dizkiguten sorginak ohoratzeke.

Isildutako iraultza txiki eta handien historia da, gure lurraldeko landa-eremuan oraindik ere badirauena. Landa eremuan egunerokotasuna dira baserriaren iraunkortasunaren izenean andreoi lurraldearen jabetza kentzea; kalitatezko eta hurbileko azpiegitura eta zerbitzu publikoen gabezia; kapital transnazionalak ondasun naturalei egiten dien jazarpena eta lan-esplotazioa. Lehen gure birramona heretikoei su ematen ikusi zituzten lurak dira gaur egun milaka langile migratu hartzen dituztenak, kontraturik eta eskubiderik gabe, landa-eremuan luzatzen den prekaritaterik gaiztoena beren gain hartzen dutenak. Guztiontzako

elikadura burujabetza nahi dugu, baina Atzeritarren Legea batzuei bakarrik aplikatzen zaigu.

Naturaren eta lurrean bizi eta lan egiten duten pertsonen eskubideen urraketak da kanporatze eta lurralde-kontrolko proiektu politiko sekularra. Horren aurrean, gero eta anitzagoak dira bizi-ibilbideak, etniak, larruazalaren tonuak eta hizkerak gure herrialdeko negutegietan, ez gatazkarik gabe, elkarrekin bizi direnak. Inoiz ez da hain agerikoa izan lapurtutako lurra berreskuratzea dela herriek partekatzen duten hizkuntza. Ez da kasualitatea, beraz, Euskal Herriko baratzeetan euskara izatea azentu eta jatorri ezberdinekin, landa-eremuaren emantzipazio eta pertsonentzako justizia egarri diren kosmobisioak lotzen dituen zubi komuna.

Hizkuntza da sinbolikoa errealerara itzultzen duena. Hizkuntza da errotzen gaituen sustraia, zentzumenak elikatzen dizkigun adarra, eta etorkizuna landatzen duen espora. Hizkuntza da herri baten idiosinkrasiaren loratze autoktonoena. Eta Euskal Herrian euskara da herri gero eta anitzago baten hizkuntza komuna, zapalkuntza, bazterketa eta (mono)kultura ororen aurka ernamuntzen dena. Oinek zapaltzen duten lurrean pentsatzen du buruak. Horregatik, lurrerako eskubidea herrien hizkuntza komuna bada, euskara agroekologia hutsa da. ●

A ZE FAUNA!

IZOTZ AROTIK HONA, ENDEMISMOA KOLOKAN



IRATI DIEZ VIRTO



JOJERRA AHHARTZA / WIKIMEDIA COMMONS CC-BY-NC-ND 4.0 INTERNATIONAL

Azken glaziazioan Euskal Herriko lurraldea zapaltzen zuten mamutek, leizeetako hartzek, bisontek eta baita hienek ere. Elur iraunkorrera eta hotzera egindako animalia horiek desagertu egin ziren baldintza glaziarrekin batera. Baina dinosauroen desagertuaren garaian ugaztun txikiek biziraun zuten moduan, azken glaziazioan ere baldintza horietara ohitutako animaliatxo bat konfinituta geratu zen habitat jakin batzuetara, eta hala iritsi da gaur egunera arte muturluzea.

Pirinioetako desmana, ur-satorra edo muturluzea (*Galemys pyrenaicus*) ugaztun txiki bat da, trikuen, satitsuen eta satorren taldekoa. Erdi-urtarra da, eta Iberiar Penintsularen iparraldean eta Pirinioetan bizi da, erreka-estuetan barrena. Uretan bizi den sator itxurako animalia muturluzea dugu, beraz.

Izotz aroetan bizitzera moldatutako animalia izanik, erreka hotzak behar ditu muturluzeak, eta errazagoa da ibaien goi-ibilguetan aurkitzea. Animalia txikia da, ordea, eta fisikaren legeek agindu moduan, beroa segituan galtzen du. Horri aurre egiteko, ziztu bizian mugitzen da eta ikaragarritzko jatuna da; egunero bere pisua halako bi edo hiru jan behar du. Uretako zomorrotatik elikatzen da gehienbat.

Ederra izan behar du halako animalia txiki eta kementsua bere saltsan ikustea, baina hura ikertzen dutenek eta bes-

MUTURLUZZEA

Galemys pyrenaicus

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna.

NEURRIA: 11-13 cm isatsa gabe. 50-80 gramoko pisua.

NON BIZI DA? Ongi oxigenatutako eta abiadura handiko ur-lasterretan, mendiko erreketan.

ZER JATEN DU? Ornogabeak.

MEHATXU NAGUSIAK: Erreketako kutsadura, oztopo artifizialak eta erreketako ur-emaria txikitzen duten kanalizazioak.

BABES MAILA: Espezieen Espainiako Katalogoan, "ahul" kategorian sartuta daude Hego Euskal Herriko populazioak.

te gutxi batzuek izango zuten halako zortea, oso zaila baita muturluze batekin topo egitea. Alde batetik, animalia gautarra delako. Eguna erreka ertzeko arrakalaren batean pasatzen du, habian goxo gordeta. Gaua iristearrekin batera, zulotik irten eta ibaian igerian ibiltzen da ehunka metro gora eta behera, korrontearen alde zein kontra, janari bila. Hala ere, muturluze bakoitzak bereziki

gustuko dituen eremuak dituela dirudi, eta eremu horiek ur-lasterretan izan ohi dira, ongi oxigenatutako eta abiadura biziko eremuak. Bertan dago haien bazkaleku aproposena. Muturluzeak ur azpian ehizatzen du, eta bere gorputzak flotatu egiten duenez, ur-korronte bizkorrek urperatuta egoten laguntzen diote. Erreka-hondoko harriak itsatsi eta bertan egoten da zomorrotak jan eta jan. Harri-pariengandik babesteko ere estrategia ederra da urperatuta egotea.

Landaretzaz inguratutako erreka garbi eta bizkorak behar ditu, beraz, muturluzeak. Horiek aurkitzea geroz eta zailagoa da, eta gauza bera gertatzen ari da muturluzearekin ere. Azken hamarkadotan %85 murriztu da haren banaketa penintsula osoan. Erreken baldintza optimoetan eragina duen edozerk asaldatzen du muturluzea; ur-fluxuaren abiadura murrizteak kanalizazioen bidez, oztopo artifizialak eraikitzeak edo uraren kutsadurak.

Gogorarazi behar dugu, gainera, giza-kiontzat "txukuntasuna" denak ez duela balio eremu naturaletan. Muturluzearentzat eta beste hainbat animalia urtar eta erdi-urtarrentzat, erreka "txukunak" kutsadura gabeak dira, eta habitaten aniztasuna dutenak. Ibaieretako landareak, enbor zatiak, orbel usteldua eta harri puskak ez dira zikintasuna, aniztasuna baizik; azken finean, muturluzea bezalako ondare endemiko eta bakarrak bizirautea ahalbidetzen duten guneak. ●

MINGRANONDOA, BESTE BAT ETXERAKO



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Mingrana urrutitik ekarritako fruitua da. Punisagarra da mingrana edo alesagarra edo alegorria edo milagrana edo xokorra edo granada: *Punica granatum*. *Punica* izena latinetik dator, eta “*punicum malum*” izenaren laburdura da, eta *punicum* horrek *Poenus* edo *Phoinikes* du jatorri, hau da, fenizioak, beraz, mingrana fenizioen sagarra da, latinez. Hortik euskarazko punisagarra ere. *Granatum*, aldiz, *grânâtus* hitzetik dator, ale edo grano ugariduna.

Itxuraz Irandik ekialdera sortutako fruta arbola da eta handik mendebalderantz, Mediterraneora fenizioek ekarri eta zabaldua. Preziatua izan da aspaldidanik eta inguru horretako kultura guztietan gurtutako fruitua da. Judu, musulman, kristau, egiptoar, greko, erromatar eta inguru haietako sekta guztien aldretean urrutira gabe ibili da mingrana alea. Geurera ere iritsia da, aspaldi, eta izen batzuk bidaia horretatik etorritakoetatik jasoak dira: punisagarra, milagrana, mingrana eta granada; beste batzuek, xokorra, alesagarra eta alegorria, euskaratik sortuak dirudite. Gaztelaraz aritzen direnek diote granadari “mingrana” esaten diotela Milagron. Gutxi-gehiago dozenaren bat mende bada arabiarrak Nafarroa hegoaldean egonkurtu zirenetik. Eta ekialdeko jakintsuak mingranondorik gabe ez ziren etorriko. Mingranondoa edo mingrana errexala, granadaondoa, mingranalatzea denez, badu gurean izen ugariaren zahardadea behintzat.

Joan da Euskal Herriko mingrana sasoia. Bai, bai, hori ere han eta harago ikusten da eta gero eta gehiago ugari-tuko diren fruta arbola horietako bat izango da. Gure etxean ederki asko dator, ea hastear den sasoi berri honetan



WIKIMEDIA TT137 / CC-A-SA3.0

adoretu eta fruituak emateko asmoa hartzen duen.

Udazkenari bizi puntu polita erans-ten dio bere muztioak. Guk zuzenean edaten dugu jengibre (*Zingiber officinale*) mordoska batekin. Baina uzta ugaritu ahala muztio horren beste bide batzuk lantzeko asmoa dut: punisagardoa egin nahi dut. Lehengo mendeko idazleek jaso duten eran puni sagardoa (Nikolas Ormaetxea “Orixe”), mingrana-mistela (Juan Inazio Goikoetxea “Gaztelu”) edo granada-mistela (Santiago Onaindia).

Punisagardo horrekin koktelen mundua etxekotu nahi dut. Baditut batzuk begiz eta zintzurrez jota: Tekila Sunrise: punisagardoa, laranja zukua (*Citrus sinensis*) eta tekila (*Agave tequilana*); Sex on the Beach: punisagardoa eta laranja mertxika (*Prunus persica*) eta ahabi zukua (*Vaccinium myrtillus*);

eta Diabolo: punisagardo ziropa eta limonada.

Hondartzako larru jotze horrek, Sex on the Beachek, tanto asko izango ditu, baina nik uste dut Diabolo izango dela gure etxean gehien edango dena. Izan ere, granadinarekin koktela osatzeko mingranak beste izen polita ere badu: alegorria. Eta Kandido Izagirre lexikografo frantzi- kotarrak lehengo mendean Arantzazu aldean jaso zuenaren arabera, alegorria da “elizatik apur bat urrundutako pertsona”.

Badu mingranak beste edeski polit bat: agi danean mingrana ale guzti-guztiek barruan ale kopuru berbera dute. Baina kopurua zein den denak ez dau- de ados. Batzuek diote urteak egunak adina dituztela: 365 ale. Beste batzuek, ordea, 613 dituztela diote. Sekula zen- batzea otu al zaizu? Koktelari tiraka hainbatu beharko ditugu. ●

HERRIZOMA

GASTEIZKO ELIKADURA SAREA ERALDAKETARAKO TRESNA



GARAZI ZABALETA

Pandemiaren ondorengo testuinguruan, elikadura -ustez oinarrizko eskubide den hori- lantzeko mugitzen hasi zen talde bat Gasteizen. “Militantzia esparruan beste gaiak jorratzen ari ziren ordurako, etxebizitzarena kasu, baina elikadura ardatz hartuta ez zegoen horrelako kolektiborik, hutsune bat genuen”, azaldu du Haize Agirre Herrizoma proiektuko kideak. Hutsune horri erantzuteko asmoz jaio zen Herrizoma: elikadura ardatz hartuta, kapitalismotik eta patriarkatutik “desertatzeko” eta bestelako bizitza eta harreman ereduak sortzeko lanean ari den egitasmoa.

EROSKETA KOLEKTIBOAK

Herrizomaren lehen ardatza erosketa kolektiboena da. “Hurbileko ekoizleekin harremanetan jarri ginen, bitartekariak kentzen saiatzeko, elikadurarekin dagoen espekulazioari aurre egiteko”, azaldu du kideak. Modu autogestionatuan eta kolektiboan egiten dituzte erosketak, eta horretarako zenbait irizpide ezarri dituzte: bertakoa izatea, ekologikoa -zigilurik gabe bada ere-, ekoizleekin afinitate ideologikoa edukitzea, lan baldintza duinetan ekoizitako produktua izatea... “Dena dela, kontraesanak ere sortu zaizkigu, izan ere, proiektua guztientzako irisgarri izatea eta komunitatera profil askotako jendea batzea nahi dugu, beraz, merkea izatea ere nahi genuen”, gehitu du Agirrek.

Oreka bilatu nahian eta bertakoa eta ekologikoa merke izatearekin uztartzeko saiakeran, formula bat planteatu zuten: produktu bat iristen zenean, kide batzuek %20 gehiago ordaindu zezaketen, beste batzuek hori gutxiago ordaintzeko. “Hala ere, garestia izaten segitzen zuen, eta momentu honetan egitura eta aukera



berriak bilatzen ari gara”, dio. Izan ere, 2024an ohartu ziren erosketa ahalmen zehatzeko jendea soilik gelditzen zela proiektuan, eta hausnarketa prozesu baten ondoren, supermerkatuetan bilketak egiten ere hasia erabaki zuten, oinarrizko elikagaiak bildu eta saskiak banatzeko. “Hor ari gara hausnarketan eta gauzak zalantzan jartzen, antolakuntza asistentzialetatik aldendu nahi dugulako, baina errealitatea da jende asko hurbildu dela aldaketa egin dugunetik, gaur egun 40 lagun inguru elkartzen gara asanbladetan”, dio.

EKOIZPEN KOMUNALA

Proiektuaren bigarren ardatza ekoizpen komunalarena da. Hasieratik, Errekaleor auzoan baratzea egiten dute kideek. “Baratzearena hasieratik izan da proiektu zentrala, eta horren bueltan bestelakoak ere sortu dira: sendabelarren taldea, kon-

tserbena, garagardoa egiten zuena, ezta ekoiztekoa...”, adierazi du. Hileroako asanblada nagusian erabakitzen eta banatzen dira hurrengo hilabeteen baratzean, erosketa kolektiboan nahiz biltegiaren egin beharreko lanak, eta momentuan txanda guztiak betetzen dituzte. Gero, baratzeako produktu fresko guztiak Alde Zaharreko biltegiara eramaten dituzte. “Proiektuko edonork har ditzake biltegitik barazkiak, baina ez ditugu kide guztiok hartzen, batzuek baratzea bere kasa ere egiten dutelako, adibidez”.

Galdakaoko Elkarlaguntza Sarea eredu izan da Gasteizko Herrizomarentzat, eta hiriko beste kolektiboekin eta Euskal Herriko antzeko beste egitasmoekin sareten ari direla nabarmendu du kideak. “Etxebizitza sareen topagunera gonbidatu gintuzten, eta hasi gara honi forma ematen Hego Euskal Herriko antzeko proiektuekin batera”. ●

ARABAKO MUSIKA KOLEKTIBOAK

Guk geuk, geure erara

Kolektiboki antolatzeke grina aspalditxotik gorpuztu da, besteak beste, kulturaren esparruan. Jendea batzeko abaguneak dira kontzertuak, eta horregatik, musika kolektiboek egingo diegu txokoa erreportaje honetan. Gaia hain zabalean hartu ordez, Araban ipiniko dugu fokua, baduelako bere idiosinkrasia propioa.

 LARRAITZ FAGUNDEZ OSA

Musikaren industria hazten eta irabaziak pilatzen ari da azken urteetan, eta zuzeneko emanaldiak eta jaialdi handiak dira gehien esplotatzen ari diren diru iturrietakoa. Maiz salatu den bezala –besteak beste, makrofestibalek piztutako eztabaidarekin–, arpilaketa dago irabazi handien atzean: batik bat langileena, musikariena eta espazioena –gentrifikazioarekin eta turistifikazioarekin duen lotura zuzenagatik–.

Merkatu bortitza da: mundu mailan zuzeneko emanaldiak antolatzen dituen enpresarik handienari monopolio ilegala egotzi diote, eta Euskal Herrian ere kapitala kontzentratzea da joera. Oro har, kapitalismo garaikideak eta, zehazki, entretenimenduaren eta musikaren industriaren joerek aldaketa kulturalek eragin dituzte aisialdia eta zuzeneko musika bizitzeko moduetan. *Fomo*-a dagoela esaten da, *sold out* fenomenoak,

musika eta kontzertuak salerosketarako produktu direla, azkar kontsumitu eta ahazteko eginak, sarreraren prezioak altuak, *influencer*, jarraitzaile eta fanen dinamikak, modak... Oro har, esperientzia eta harreman oro komertzializatzen da, kontzertuak batzuentzako arrotz eta desatsegin bihurtzeraino. Industriak gero eta estuago kontrolatzen du musikaren ekoizpen eta banaketa, baina baita kontsumoa edo entzuteko eta bizitzeko modua ere. Gero eta nabarmenagoak dirudite azken horren ondorioek, erreportajeko mahaikideak azalduko dutenez.

Testuinguru horretan, autogestioaren aldeko hautua egiten dute musikari eta zale askok, zuzeneko kontzertu eta ekitaldiak antolatzeke: baliabide propioekin jardun, kanal komertzialetatik kanpo eta enpresen eta instituzioen esku hartzerik gabe, askatasun artistiko eta ideologikoaren izenean. Printzipio eta lanabesa da autogestioa, komertzia-

lizazio basatiari aurre egiteko ez bada, gutxienez bizirauteko modu bat, *beste* era batera egiteko, *beste* balio batzuen arabera.

Arabian eta zuzeneko musika printzipio horien arabera antolatzen dituzten kolektibo batzuetako kideekin mintzatu gara, panoramari buruzko zertzelada batzuk jasotzeko. Ez da jaso Gasteizko *underground* errealitate guztia, zorionez askotarikoa eta oso zabala delako, ezta taberna eta areto guztien programazioa ere. Askoz lerro gehiago beharko lituzke horrek guztiak.

AZKEN HAMARKADAN ERNALDUTAKOA

2016ko irailean antolatu zuen lehen kontzertua Muinoko Hotsak ekimenak, Hala Bedi irratia eta Gasteizko Gaztetxeak sustatuta, gaztetxean bertan. Han ibili ziren Ion Etxebarria *Okantza* (Arrasate, 1983) disko-jartzailea eta Aitor Garcia de Vicuña (Gasteiz, 1992) musikaria.

Ekimena modu espontaneoan eta helburu xumeekin sortu zela azaldu du Okantzak: “Historiako beste ideia asko bezala, poteo batean bururatu zitzaigun, gustuko taldeak gure hirira ekartzeko eta gaztetxea eta irratia sustatzeko”. Izen eta estetika propioa izan zituen, eta gerora hirian sortuko ziren kolektiboentzako erreferente izan zen. Hilean behin egiten zituzten kontzertuak,

sarrera merke ipinita, edonor etorri ahal izateko; musikariei baldintza eta tratu onak ematen ahaleginduta; eta euskararen eta emakumeen presentzia bultzatuta. Aldiro hiriko talde bat gonbidatzen zuten gutxienez, bertako eszena bultzatzeko, eta batzuetan talde handiagoak ere bai, kontzertu askorekin dirua galtzen zutelako. “Batez ere, dena den, gure lagunak ekarri nahi genituen”, azaldu du Garcia de Vicuña.

Zortzi urte geroago, 2024ko irailean, motibo bertsuarekin jaio da Hil Da Laboa (HDL) kolektiboa. Ez Gasteizen, baizik eta Murgian, Zuian. Herriko gaztetxean hilean behin kontzertuak antolatzen ari dira. Gorka Intxausti (Ondarroa, 1995) bultzatzaileetako batek azaldu duenez, haiek ere musikazaletasunak bultzatu ditu funtsean. Beldur ziren, hasieran, Murgia bezalako herri txiki batera jendea gerturatzea lortuko ote zuten, baina oso pozik daude orain arte izandako erantzunarekin. Azken urteetan testuingurua aldatu dela uste dute, eta enpresari eta erakundeen boterea eta horiek hauspotutako makro-



festibalen eredua gailentzen ari dela. Horren aurrean “artearen merkantilizazioaren eta produkzio komertzialen aurkako mezua zabaldu” nahi dute, eta tokiko eszena autogestionatua bultzatu.

Ondarroako Betepaeta proiektua izan da HDL kolektiboaren erreferentzia zuzena; Intxaustik gertutik ezagutzen du, sortzez ondarrutarra delako. Betepaeta Ondarroako gaztetxean jaio zen 2022an, kontzertu zikloa izateko asmoz hasieran, baina antolakuntza lanetara jendea batu ahala, kolektibo izaera eman diote taldeari, eta zigilu bezala aurkeztu dira berriki.

Hil Da Laboa kolektiboa bezalatsu, aipatzekoa da pandemiaren ostean, 2022 eta 2024 artean, talde ugari sortu direla Euskal Herrian barna. Soinu Basatiak, Lege Berria, Egun Motelak edo Oztoporik Ez kolektiboak, batzuk esatearren, denak ere *Zuk Zeuk Egin* etika oinarri. Estiloz askotarikoak dira, eta musikariak zein musikazaleak batzen dituzte. Askoz kolektibo gehiago daude Euskal Herri osoan zehar, zaharrak eta berriak.



Goian, Muinoko Hotsak antolatutako kontzertu bat, Moon Shakers taldearena. Behean, Gasteiz Hardcore Crew (GHC) kolektiboaren jaialdi bateko argazkia.

ESTILO JAKINEI LOTURIKOAK

Badira musika estilo zehatz bati lotzen zaizkion kolektiboak ere. Adibidez, Okantzak beste lagun batzuekin iaz hasitako Gasteiz Soul Club-ek pintxadak antolatzen ditu. *Klask!* fanzinea argitaratzen dute lehenagotik, eta soulari, tradizio kontrakulturalari eta politikoari buruz idazten dute bertan, baina klubak eta zuzeneko musikak komunitatea batzeko gehiago balio dezakeela uste dute.

Erabat diferentea da Gasteiz Hardcore Crew-ren (GHC) ibilbidea. GHC sortu zenean, orain dela zortzi urte, bazen dagoeneko estilo horren bueltako musika talde eta zale komunitate nahikoa handia, eta Hego Euskal Herriko beste herrialdeetan ere horrelako taldeak zeuden lehenagotik. GHCK hardcorea sustatu nahi zuen, elkartasuna eta parte-hartzearen baloreak zabaldu, eta eszena politizatu. Sorreratik aritu zen bertan Jorge González musikaria (Gasteiz, 1996), eta *crew*-aren lekukoa hartu duen La Bola Loca irratsaioa gidatzen dutenetako bat da gaur egun.

“Mahai-inguruak eta tailerrak egin genituen, baita jolasak ere kontzertuen artean, elkar ezagutzeko eta giro ona sortzeko, jendea partaide sentitzeko”, du Gonzálezek gogoan. Azpimarratu du taldea sortu zutenetako askok Gasteizko txosnetako Gazte Karparen abestia egiten ezagutu zutela elkar, MusikGerrilla kolektiboaren ekimenez.

MusikGerrillak “musika kolektibo iraultzaile” gisa definitu zuen bere burua eta Arabako dozenaka musikari gazte batu zituen. 2012an sortu zen, handik gutxira ibilbidea amaitutzat emango zuen MusikHerriaren eredia jarraituta. Aurreko urteetako errepresio eta sarekada handien ostean, testuingurua nolabait aldatuta, hainbat ekimen atera zituen aurrera Arabako gazte mugimenduak, aipatutako Gazte Karpa eta MusikGerrilla, esaterako.

Araban une horretan zeuden gazte talde asko elkartu eta elkarri laguntzeko sortu zen kolektiboa, baina baita panorama kulturala astintzeko ere. “Ez zen zigilua zehazki, baina talde txiki eta alternatiboen promozio lana egiten genuen, autoedizioa bultzatzen zen, musika maratoia antolatzen genuen eta taldeen abestiekin bilduma bat ere atera zen, auzoetako jaietan jotzen genuen...”, oroitzen du García de Vicuña. Ez zen izan zehazki kontzertuak egiteko sortutako taldea, zuzenean eragin bazuen ere esparru horretan.



Erreportajeko hizlariak: Gorka Intxausti, Jorge González, Aitor Etxebarria *Okantza* eta Aitor Garcia de Vicuña.

“Gasteizen iraun dute espazio okupatu, taberna eta aretoek, ziurrenik erakundeek eta enpresa handiek ez dutelako aisialdian eta turismoan Donostian eta Bilbon bezainbesteko apusturik egin”

Jorge González

Atzera begiratuta, iruditzen zaio MusikGerrillan ikasi zutela biltzeko eta antolatzeko ohitura, hausnarketaren eta eztabaidaren garrantzia, auzi politikoak lantzearena, baita komunitatea sortzearena ere. MusikGerrillan ezagutu zuen Gonzálezek García de Vicuña ere. “Eskola” izan zen bientzako, eta gerora Arabako eszena alternatiboan eragile izan diren beste batzuentzako ere bai.

NON GAUDEN ETA NORA GOAZEN

Gizonak izan dira gehiengo kolektibo hauetan. Autokritikaren eta kontraesanen jakitun izatearen garrantzia azale-

ratu da solasaldian. “Espazio segurua eraikitzea lehentasuna da guretzako eta horretarako antolakuntzan emakumeak egoteak eragina du”, Intxaustiren iritziz.

Gasteizi dagokionean, *underground* eszena osasuntsu dagoela uste du Gonzálezek, eta ez soilik musikan, baita beste diziplina artistiko askotan ere, antzerkian edo zinema zaleen artean, adibidez. “Gasteizen iraun dute espazio okupatuak, taberna eta areto txiki eta ertainek, ziurrenik erakundeek eta enpresa handiek ez dutelako aisialdian eta turismoan Donostian edo Bilbon bezainbesteko apusturik egi”.

Okantzak gogoan du orain dela urte batzuk egunero zegoela Gasteizen aukera emanaldiak egiteko: “[Tabernetan] astearteetan Parral, asteazkenetan Ibu, ostegunetan Gora, eta asteburuetan hamaika aukera. Orain ere badaude, espazio pribatuak izan arren, kontzertuak helburu komertzialik gabe antolatzen dituzten tabernak, askotan galerekin”.

Aisialdian eta jendearen ohituretan ere kultura aldaketa ematen ari dela kontuan izan beharra dago, García de Vicuñaeren ustez. “Orain ez da horren ohikoa astearte batean, adibidez, ordu txikiak arte egotea kalean kontzertu batera joan zarelako. Gehiago egoten gara etxean bakarrik serieak ikusten, eta espontaneitaterako tartea ere txikiagoa da: ezin zara joan planifikatu gabe aste barruan hitzaldi, kontzertu edo antzerki batera, berandu egiten zaizula sentitzen duzu, planak aldatzen zaizkizula”.

Aisialdia gero eta indibidualizatua-
goa da, bizitzaren erritmoa azkarregia,
inora ez iristearen sentsazioa, nekea eta
ondoeza orokortuak diren garaian, ez
da harrizkoa entretenimendura bide-
ratutako produktu kulturalak kontsu-
mitu nahi izatea, errazak eta atseginak.
Okantzak uste du, hala ere, badagoela
jendearen ohituretan eragiteko aukera,
batez ere maila lokaletik hasita. Musika
eta giro ona eskaintzen bada, jendeak
hartzen du joateko ohitura, eta musika
estilo partikularrekin ere gertatzen da:
zaletasuna zabaltzen da eszena susta-
tzen bada eta baliabideak badaude. Au-
topromozioaren eta lehiaren kulturaren
kontra, “elkar ezagutzea eta elkar lagun-
tza bultzatzen badira, fruitua ematen
du” gehitu du Garcia de Vicuña.

“Orain ez da hain ohikoa
astearte batean, adibidez,
ordu txikiak arte egotea
kalean kontzertu batera joan
zarelako. Gehiago egoten
gara etxean, bakarrik,
serieak ikusten”

Aitor Garcia de Vicuña

Musika entzuteko modua ere aldatu
da eta eragina du zuzenekoak bizitzeko
moduan, dio Intxaustik. Izan ere, *stream-
ing* plataformen bidez zuzenean ikusi
aurretik entzun dezakezu musika, eta
erabaki gustatzen zaizun edo ez. Baditu
alde onak, noski, baina arriskuak ere
bai. Joera egon daiteke soilik instanta-
neoki gustatzen zaizun musika entzu-
teko, erraz harrapatzen zaituena, edo
algoritmoak ematen dizuna. Herrian
dauden kontzertuetara joanez sustatu
daiteke kultura musikal zabalago bat,
jendea ohitzeko ahalegina egin, gauza
berriak baloratzeko, mezu konplexua-
goak dituzten gauzak entzuteko. Gai-
nera, zuzeneko saioak, beste ezeren
gainetik, esperientzia kolektiboa direla
azpimarratu du Intxaustik, eta logika
merkantilik ez duten harremanetan



Goian, Okantza pintxatzen, Ttipia tabernan. Behean, Hil Da Laboa kolektiboak antolatutako emanaldi bat.

oinarritzea nahi dutela HDLn. Berari,
hain zuzen ere, “komunitate” horrek
eragin zion interesa musikan.



Azken batean, bada zerbait irauten
duena: oinarri-oinarrian komunitatea
eta harremanak sortzea bilatzen dugu
denok, eta gehiago konektatzen dugu
“benetakoak eta zintzoak” diren adie-
razpen artistikoekin, Garcia de Vicuña-
ren hitzetan. Helburu ekonomikoek
baldintzatzen ez dituztenak eta sozial-
ki esanguratsuak direnak, azken ba-

tean. Industria kulturala modernizatu
eta sofistikatu bada ere, autogestioak
eta *Zuk Zeuk Egin* filosofiak duten gaur-
kotasuna erabatekoa dela uste dute
mahaikideek, komertziala ez den mu-
sikak eta mezu antikomertzialek tokia
izan dezaten, eta kontzertuak eta aba-
rrak beste logika batzuen arabera
harremanak eraikitzeke espazio izan
daitezen. Musikarien zein zaletuen in-
plikazioa eskatu dute, eszenan eragiten
jarraitzeko. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA ALEX PANCHO ROBLESEK, HIZKUNTZA AKTIBISTA GUARANIAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.


	8		9	3		2		7
3		5	4		8	9		
9	2			7		8		3
	4		7	6				8
8		2			4	5		
7		9		5	2	6	3	
6	3			9	7	4		
1	5			8	3	7		
2			5	4				1

ERRAZA

		8						9
	1		2					4
4						3	2	
3		6	4	7				
	9	4				8	7	
			9					2
				4	9	2	6	
1	5			6	3			
								1

ZAILA

1. Leun.
2. Marrazki.
3. Gure aldekoa, gure iritziak dituen.
4. Madari.
5. Enea.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				O	S	E	N	O
2	M				A	T	U	A
3	S	E				T	U	A
4	I	K	E				T	A
5	D	E	S	O				A
6	B	E	G	I	O			

EBAZPENAK

7	2	8	6	3	4	1	5	9
9	1	3	2	5	7	6	4	8
6	4	5	8	9	1	3	2	7
3	8	6	4	7	2	5	9	1
5	4	3	7	6	9	1	8	2
8	6	2	3	1	4	5	7	9
2	9	7	5	4	6	3	1	8
1	5	4	2	8	3	7	9	6
4	8	1	5	4	6	3	7	9
3	7	1	4	9	2	6	5	8
8	3	7	1	4	9	2	6	5
5	7	1	9	8	5	2	6	3
2	9	4	3	1	5	8	7	6
6	4	5	8	9	1	3	2	7
9	1	3	2	5	7	6	4	8
7	2	8	6	3	4	1	5	9

ZAILA

PUZLEA: "ERRELATOA ERAIKI DUTE, ZEINAREN ARABERA GUARANIERA ATZERAPENA DEN, HORI SARTU DIOTE 4.6.5.8.9.1.3.2.7. ZUTABE BURNAN GURASO ASKORI, BEREN UMEEK GAZTELANIA IKASI BEHAR DUTELA." 5XS: 1. BIGUN, 2. IRUDI, 3. GUTAR, 4. UDARE, 5. NIREA. **HIZKI BERAK:** 1. KEROSENO, 2. MERKATUA, 3. SEKRETUA, 4. IKERKETA, 5. DESOREKA, 6. BEGOKER.



Hemen gezurra nagusi

 AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

 LOKATZ LOREAK LLAVORI

Bertsoa bertsolaritza, bertsoa bertsolaritza, ireki didate fitxa. Mikrofonoa(re)n desditxa, hortxe joan zait bizitza. Hortxe joan zait bizitza, bertsoa bertsolaritza.

Hiru bertsolari gaztek sortu eta gorpuztu dute bertsolaritzaren gonazpiak dakarkien dardara eta ardurei buruzko antzezlan hau. Errimak eta doinua, jakintza eta testuingurua. Mikrofonoa eta ahotza. Lehia. Deia. Konplexuak, begiradak, fokoa, presioa, ospea eta txaloa. Obsesioa. Tragoa. Domina eta trofeoa. Maskarak, ausardia eta zeloa. Bertso munduak, magikoa izateraino, badu bidea.

Bizipenak lehen pertsonan kontaktzen dituzte, Bizkaiko Bertso Munduko Emakumeen Topaketetako bazkarian sortu baitzuten ideia, euren ezinegonei buruz hitz egiten ari ziren bitartean, *Bertsoa.eus*-en kontatu dutenez. Konfort zonatik atera eta bi arte diziplina nahastera ausartu dira, bertsoaren hertsitasunak gaintu eta gorputzari emateko bide,

hitz egiteko modu asko baitago, baita ikusia eta entzuna izatekoa ere.

Mikrofonorik gabeko euskarria eta itzala ematen duen fokoa. Halakoak izan dira erabilitako elementuak. Eszenografia xumea, baina garrantziaz beterikoa. Bertso munduan erabiltzen diren ohiko objektuak eraldatu egin dituzte eta nahieran erabili. Oholtza atzealdea ere erakutsi dute eta mikrofonorainoko bidea zenbaterainokoa den norberaren buru eta gorputzean.

Esan bezala, tradizioa eta antzerki garaikidearen dinamikak uztartzen ditu aipaturiko lanak. Gero eta gehiago dira, bertso munduan, egituraren mugak gainditzera animatzen diren sortzaileak: bertso musikatuak, doinu berriak, jolasak... Obra honetan dialogo guztiak kantatu egin dituzte, baina bada bestelako adierazpenik ere. Hala ere, bertsolaritza eta antzerkia uztartzeak badu zenbait muga. Antzezleen energia eta grina agerikoa izan arren, narratiba mota horrek zati-

ITZAL(IKO) BAGINA

TALDEA: Lokatz Loreak.

AKTOREAK: Aritz Katarain, Janire Arrizabalaga eta Izaro Bilbao.

ZUZENDARIA: Iraitz Lizarraga.

NOIZ: otsailaren 2an.

NON: Usurbilgo Sutegi aretoan.


katu egiten du kontakizuna, bi diziplinen artean eremu komun bat aurkitzeko borrokan ariko balira bezala. Une batzuk hain magikoak ez izatea dakar horrek, publikoa urruntzea, batez ere bertsolaritzara ohituta ez daudenentzat. Onartzen duzunean, gozatu ederra hartzeko aukera ere badago eta hartu-emaileen arteko harremana berriro estutzekoa. Hau esanda, argi dago, hiru sortzaileen punturik fuerteena hitza dela, berezko edertasuna bilatu baitiote esan nahiei.

Honekin guztiarekin publikoa hausnartzera gonbidatu nahi dute. Besteak beste, aurpegi publikoa izatearen zamaz, begiratuaz izateaz, gorputza arbuiatzeaz, lehiaren presioaz, familiarenaz, gaztea eta berria izateaz, doinuak aukeratzeaz, proposatzeaz edo onartzeaz, irabazteaz eta ez irabazteaz, eta izateaz eta ez izateaz. Nola utzi superfiziala dena superfiziala den estruktura batean? Erresilientziaren eta sormenaren testigantza bat da, zalantzarik gabe. ●



LIBURUA

Eklipsea



ZALOTZBA MORFEM

DRAGOIAK EGUZKIA IRENTSI ZUENEOA

AKSINJA KERMAUNER

ALBERDANIA, 2024

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Hamarnaka liburu idatzi ditu Aksinja Kermauner idazle esloveniarrak. Euskaraz plazaratutako lehenengoa dugu hau, Patxi Zubizarretak itzulia eta Alberdaniak argitaratua. Argitaletxearen webgunean esatean da egileak haur, gazte eta helduentzat idazten duela; horretaz gain, zentzumen urritasuna duten haurrentzat ere idatzi duela zehazten da, ukimenezko liburu ilustratuak adibide. Gaiarekiko sentsibilitatea du, ikusmen urritasuna duten gazteekin lanean aritutako emakumea da Kermauner. Dragoiak eguzkia jan zueneko liburu protagonista ia itsua da, eta bere ahotik jakingo dugu ikasle eta irakasle talde batek Txinara egiten duen bidaiaren berri.

Bidaia liburu batek dituen ezaugarriak jasotzen dira: turismo gidaria den Laurak kontatuko dizkigu herrialdeko xehetasun mitologikoak (izenburuko

dragoia, adibidez) eta historikoak/geografikoak, edo monumentu garrantzitsuenen detaileak.

Afera linguistikoak ere kontuan hartu ditu idazleak eta egituraren eragina du horrek. Kapituluaren izenburuak euskaraz, txineraz eta Pinyinez (idazketa fonetikoan) idatzita baitaude. Taldeak dastatzen dituen jakien errezeta pare bat ere aurkituko dugu. Akaso zehatzegia eta luzeegia ere baden bidaiaren egunerokotasuna kontatzen digu, finean.

Ez da, ordea, liburuan kontatzen den bidaia bakarra. Pertsonaia guztiak baina bereziki Suncan protagonistak duten barne bidaiaren kontakizuna garrantzitsua da intriga, jakin-mina eta irakurtzeko gogoia piztuta mantentzeko. Bere irakaslea eta aita dena egoskorra da, hitzak esatea kostatzen zaio eta gordezten dituen sekretuak jakiteko liburu

oso behar du. Bidaia horretan gauza asko deskubrituko ditu Suncanek bere buruaz, bere familiaz eta bere jatorriaz ere bai.

Norbaitek pentsa lezake ia ikusten ez duen Suncan protagonistak kostata egingo digula badaia erretatu erreala, sinesgarria. Baina irakurtzen hasi besterik ez dago zentzumen guztiak piztu eta liburu irakurri ahala entzun, usaindu, ukitu eta dastatzen hasteko. Protagonistak berak horrela erantzuten dio berarekin *ikus* aditza erabiltzen duen ikaskide bati (75. orria): “Bai, erabili lasai *ikus* aditza. Geraturen sinonimoa da. Gainera, nola edo hala ikusten dut nik: urrunetik belarrien bitartez eta hurbiletik eskuen bitartez”. Dragoiak eguzkia irensten duenean eklipsea gertatzen da eta (ez)argi horretan hobeto ikusten da sarri. Ariketa zinez interesgarria egileak proposatzen duena. ●



MUSIKA

Nire ama-hizkuntza feminismoa da



KULTURA PLAZARA

IKER BARANDIARAN

C ascanteko La Furia-k bosgarren diskoa plazara atera du. Mimo eta erraietatik, berarentzat funtsezkoak diren osagai horiekin, prestatu du honako pozima, pozoitsua eta aldi berean errukiorra, euskara erdigunean gero eta gehiago jartzen duena. Denbora luzea eman dio prozesuari, pieza bakoitza ekoizle eta estudio desberdinekin landu nahi izan duelako, bakoitzari bere jantzia, bere esentzia, ondo gehitzeko.

Lana zabaltzen duen *Ziertzoa*-k *Zintzoa* izena ere izan zezakeen bere jatorri eta sustraien gaineko argudiaketa garden bezain gordina egiteagatik; techno oinarriaren gainean biluztu eta ezbaian jartzen du ustezko benetazko euskal-

duntasun idilikoa (“Zergatik ez dut nire amalurraren antza?”). Jarraian dator *Me sobran dedos* oldarkorra –“No fuiste tú fueron ellos. Salga la culpa en su cuello” (Ez zinen zu izan haiek izan ziren. Irten dadila errua haien lepoetan)–, reggae-toia eta rap-raggamuffia tartekatuta.

Promenade da kulpa alderdi askotatik eta sakon behatuta, minimalista jaio eta dantzagarriagoa bilakatzen den techno doinueta ondua. *Pobre cancioncita mía* da Oñatiko musikari Aiert Alberdi aldarretsuari merezitako errekonozimendua, folkaren tenpo goxoa raparekin uztartuta. *Han matado el arte* mainstream, pose eta kulturaren bidegabeko jabetzeari eskainitako okada garratza. *Erro* kantuan La Furiak bat egiten du dagoeneko



ULTRA LA FURIA

BAGA BIGA, 2024

ezinbestez anaitzat duen Odeirekin: deserriak, periferiak, erribindikazioak eta mezu zuzenak bat datoz haien biografia eta egunerokoan. Odei-ren produkzioek duten sonoritatea bete-betean harapatu du lurralde haragoko pieza eder honek (“Zugan bizi ez den hori, gugan ez baitago hilik”).

Animales-ek gizateriaren kupidagabekeria eta sarraskia amorrazioz deitoratzen du Bad F-Line zenaren antzeko garapen elektronikoko bihurrituarekin. Bukatzeko. La Furia-ren ibilbidean oso presente dagoen Rebeca Lanek eta biek, tropikoetako sena aldarri, *Gasolina* reggaetoi pieza borobil eta dantzagarria erditu dute, dantzagarri bezain sukoia, ederra. ●

Gure nazionalismo espainiarra

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

zena duen guztia omen da” dio esaera zaharrak. Egia esan, ez dakit hala ote den, baina gaur ez zait asko axola ere. Inporta zaidana esaeraren aldaera negatiboa baita: izenik ez duena, ba ote da? Existitzen al dira gauzak, izendatzen ez baditugu?

Ufa, metafisika hori, Bereziartua. Baten batek ospa egin du dagoeneko. Mamira mesedez: arreta handiz irakurri nuen Arantxa Iraolak otsailaren 2ko *Berria*-n publikatutako artikulua. Siadecok HABEren eskariz egindako ikerketa baten berri eman zuen. Gutxi gorabehera esateko, aztertu dute euskaraz ez dakien 25-65 urte arteko Hegoaldeko jendeak euskaltegiekin duen harremana zertan den.

Nire irudiko, mota askotako interpretabideak ematen ditu. Adibidez, deigarria da –eta, era berean, ez nau batere harritu–, euskaraz ikas dezaketean hiru kolektibori buruz artikulua zekarrena: atzerrian jaiotako euskal herritarren artean ia erdiak adierazi du euskaraz ikasteko interes handia/oso handia; eta aldiz, gogo askoz gutxiago dute Euskal Herrian jaiotakoek eta Espainiako erkidegoren batetik Hegoaldera bizitzera etorritakoek: %34 eta %31, hurrenez hurren.

Etorkinak euskararen aurkakotzat aurkeztu nahi dituzten lumaje ugariako xenofoboek balukete zer pentsatua datu horiek ikusita, zeozertan pentsatzea beraien gustuko kirola balitz –ez da hala izaten ordea, lastima–. Baina, batez ere, portzentaje horiek eskuan –ia 20 puntuko aldea, alajaina–, gure artean gertatzen den, denok ikusten dugun eta, hala ere, nekez izendatzen dugun beste fenomeno bati buruzko pentsaldi baten premia larria dugula iruditzen zait: zer egin nazionalismo espainiarrean hezitakoekin –alegia, gu denokin–.

Zeren horrelako datuak ulertzeko azkenaldian zirkulazioan jarri ditugun kontzeptuei segituz gero, supremazismo linguistikoa edo, beharbada, euskarafobiaz hizketan hasi gaitezke. Eta asuntuarien dimentsio osoa itsutzen zaigu. Nazionalismo espainiarrak hitz egin behar da, hizkuntzaren gaia giltzadura politiko, kultural eta sozial zabalagoekin lotuta ulertuko baldin badugu behintzat.

Zeren horrelako datuak ulertzeko azkenaldian zirkulazioan jarri ditugun kontzeptuei segituz gero, supremazismo linguistikoa edo, beharbada, euskarafobiaz hizketan hasi gaitezke. Eta asuntuarien dimentsio osoa itsutzen zaigu. Nazionalismo espainiarrak hitz egin behar da, hizkuntzaren gaia giltzadura politiko, kultural eta sozial zabalagoekin lotuta ulertuko baldin badugu behintzat.

Gainera, gauzak askoz argiago ikusten dira habitatzen gaituen abertzaletasun bakoitzari bere izenez deitzen badiogu. Bestela, azken urte luzeetan gertatzen ari zaigun horretan erortzen baikara: euskal identitatearen esentziak deseraikitzen energia asko gastatu dugu –den-denak alferrik ez, hori ere esan behar da–; eta, bitartean, nazionalismo espainiarraren transformazio, aldaera eta estrategia berriei buruzko eztabaidarik ez da apenas geratu euskal prentsaren hemerrotekan.

Estereotipoak problema handi samarra dira, hori bai: nazionalismo espainiarra diozu eta, berehala, Torrenteren itxurako tipo bat etortzen zaizu burura, oilaskodun piperpotoarekin eta atzaparra tenkatuta. Ez duzu erraz irudikatzen zure euskal nazioaren ideiarekin batera, gauzak ulertzeko erabiltzen dituzun markoetan sekulako pisua daukala beste nazionalismo horrek ere; eta izendatzen ez duzunez, ideologikoki askoz eraginkorragoa dela.

Hizkuntzari bakarrik erreparatuta: euskararen inposizioaz aritzea, noski, nazionalismo espainiarra da. Zuzen idaztea euskaraz bakarrik baldin bada arazo, nazionalismo espainiarratik da. Bertan hitz egiten den hizkuntza gutxituaren erabilgarritasuna zalantzan jartzen bada –eta atzerriko beste edozein hizkuntzarena ez–, nazionalismo espainiarratik da. Arnasguneei buruzko iruditeri guztiz desitxuratutak euskal kulturaren ere geroz eta leku handiagoa baldin badauka, nazionalismo espainiarratik da. Profesionalki euskara hutsean aritzeak nekazari-kolonia batean bizitzera zaramatzala pentsatzen baduzu, nazionalismo espainiarraren eraginagatik da.

Noizbait hasi beharko dugu uste ustele, esentzien eta imajinario baztertzailen kolekzio hori desmuntatzen. Izena jartzea da lehen urratsa. Existitu, existitzen baita. ●



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik
gorako erosketetan.



BERTAKO -rekin, BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **benetako 24/7/365** zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz konfiantza osoa eta lasaitasunari
- Baietz bertako hornitzaileei

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko



WWW.BERTAKO.EUS

BIZKAIA
946 523 935

GIPUZKOA
943 903 450

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

bertako
igogailuak | ascensores

bertako
igogailuak | ascensores